



ARGIA

*Esklabismoa zuritu?
Ez, eskerrik asko!*

9-11.orriak

#2.692 | 2020/06/28 | 3,90 €



**Generoa eta sexualitatea
dekolonizatzen
Lakota herrian**

22 | NAZIOARTEA



**Azterketik gabe
ebalutzea
posible da**

31 | HEZKUNTZA



LARRUN #253
**Esklabotza: nola
engainatu gaituen
kapitalismoak**



ARGIA

Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIARik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
HARRY PUGSLEY / SWNS

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | BEÑAT MUGURUZA
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | J.I. ANSORENA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
- 52 | IHITZ IRIART CASENAVE
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

31 | IKUSTEN? AZTERKETIK GABE POSIBLE DA

Hirugarren ebaluazio berezi honetan irakasle askok azterketa baztertera utzi dute ebaluazio tresna gisa, ikasleen ekoizpenak eta lanak baliagarriago izan baitzaizkie azken ebaluaketa egiteko. Bizarain ikastetxeko esperientzia kontatu du Estitxu Eizagirrek.

Elkarrizketak eta erreportajeak

9 | NET HURBIL
Bristoldarrok: jauntxo honi kalte-ordainak pagatu dizkiozue 1833an esklaboak libre uzteagatik
Pello Zubiria Kamino

12 | ARRATE HIDALGO
"Konplize sarea eratuz, zientzia fikzioa oso une polita bizitzen ari da Euskal Herrian"
Miren Artetxe Sarasola

22 | NAZIOARTEA
Generoa eta sexualitatea dekolonizatu, Lakota herria altxatu
Igone Mariezkurrena

28 | KIKE AMONARRIZ | EUSKARA
"Krisitik irteteko, euskalgintzak ere bat egin behar du sektore askorekin"
Miel A. Elustondo

34 | LANDA-PAISAIK
Aizarnako baserriaren erresilientzia gaitasuna mendez mende
Josu Narbarte

36 | NAZIOARTEA | JORGE FREYTTTER-FLORIAN
"Kolonbiako Estatuak paramilitarismoa zuritu nahi du biktimen koordinatzaile berriaren bitartez"
Ibai Trebiño

44 | KULTURA | GAZ LIMBO
Entretenimenduaren agenda zabalean produktu bat gehiago da musika"
Kepa Matxain

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Maria Ortega, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandiandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olaso, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
ISS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoko
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

POSTUREOA

Pasa den astean espainiarren errege emerituaren erretratua etorri zen bidetik alde egin du Nafarroako Parlamentuko Gobernu Gelatik. Arrazoia? Mekara doan AHTren eraikuntza lanen truke zakuratu dituen komisio ilegalak. Navarra Sumakoak izan ezik, denak ados. Bai, PSN barne. Baina palazioko bizizalea iker dezaten eskatzea, hori ez. Hori, Espainiako alderdi "sozialista" eta "errepublikar" batentzat urrunegi joatea litzateke. Faxista batek Juan Carlos estatuburu izendatu ostean, PSOE izan da hamarkadetan, X jauna buru, helduleku nagusia Errege Etxeko bizkarroiek esku zabalka lapurtzen jarrai zezaten. Baita gaur egun ere. Espainiaren egonkortasunaren izenean.

 JESÚS DIGES  AXIER LOPEZ





MOTZEAN

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deituta mobilizazio jendetsuak egin dira Hegoaldeko hiriburuetan eta beste hainbat herritan "Publikoa, funtsezkoa zaindu, aberastasuna banatuz. Lehenengo bizitza" goiburupean.

Espainiako Auzitegi Gorenak baliogabetu egin du Lasarte-Orian udal diru-laguntzak jasotzeko haurrentzako jarduerak euskaraz egitea derrigortzen duen baldintza. Erabakia oso larritzat jo du Kontseiluak.

Ipar Euskal Herriko ikasleak eskolara itzuli dira hilaren 22an. Eskoletara "derrigor" eta "ohiko baldintzetan" itzultzeko agindua eman zuen Frantziako Gobernuako presidentek.

Bi urteko Irati motxiladun haurren aldeko mobilizazioa antolatu zuen "Irati Gurasoekin Euskal Herrira" ekimenak. Aranjuetzeko espetxean bizi da Irati, bere bi gurasoekin. Familia osoa Arabako Zaballa espetxera ekartzea eskatu dute.

Bizikletei zirkulazio zerga jartzeko aukera aipatu du Iruñeko alkate Enrique Mayak. Hautsak harrotu ditu adierazpenak.



Felipe González-GAL harremana ikertzeko eskatu dute

ARGIA

CIAren (AEBetako Inteligentzia Agentzia Zentralaren) dokumentu batzuk desklasifikatu dituzte eta horietan 1980ko hamarkadako gerra zikina ikertu zuten. Desklasifikatu diren dokumentu horietako bat da *Euskal terrorismoa eta gobernuaren erantzuna* txostena, 1984ko azarokoa. *La Razón* egunkariak CIAren beste dokumentu desklasifikatu baten berri eman du. 1984ko urtarrileko txostena da eta zera irakur omen daiteke bertan: "Espainiako Gobernuak erabakia du ETArekiko estrategia ez oso ortodoxo bat erabiltzea. Felipe Gonzálezek mertzenario talde bat osatzea adostu du, ejertzitoak kontrolatutakoa, terroristei legez kanpo borroka egiteko. Mertzenarioek ez dute zertan espainiarrak izan eta beren misioa ETak Espainian eta Frantzian dituen liderrak hiltzea da. GAL izeneko erakundea Gobernuak kontuan hartu dituen eskudroien antzekoa da, izatez Frantzia hegoaldean sortu dena".

"GONZÁLEZEK ALDERDIA UTZI BEHAR LUKE"

Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiak Euskadi Irratian adierazi zuen "egin zuenak ordaindu egin behar lukeela. Bada garaia PSOEek Felipe González nahikoa dela esateko". Espainiako presidente ohiak alderdia utzi beharko lukeela iradoki zuen.

IKERKETA BATZORDEA ETA UNIDAS PODEMOSEN JARRERA

Pablo Echenique Unidas Podemoseko bozeramaileak hasieran esan zuen bere alderdiak ez zuela babestuko euskal alderdiek Espainiako Kongresuan González eta GALen arteko harremana ikertzeko batzordea. Polemika eragin zuten bai erabakiak, bai Echeniquek emandako argudioa: "Mundu guztiak daki zer gertatu zen". Alderdiak EAEn duen ordezkariak adierazpen horiek deitoratu zituen gero. Ezker Anitza-IUK eta Ahal Dugu Podemosek agiri bateratua kaleratu zuten, Echeniqueren hitzak kritikatu eta "GALen biktimen egia, justizia eta erreparazioa" defendatu behar direla berretsiz. Espainiako presidente ohiak "GALen duen erantzukizuna argitu dezala" eskatu zioten Justiziari. Egun bat beranduago, Unidas Podemosek azaldu zuen erabakia aldatu eta ikerketa batzordearen alde bozkatuko zutela. "Ziurrenik, *La Razón*ek argitaraturiko informazioa ezerezean geratuko zatekeen egoera normalean, baina euskal hauteskundeak datoz eta nazionalismoak erabaki du ongi datorkiola gaiak hitz egitea" arrazoitu zuen Echeniquek sare sozialetan, berriz ere askoren haserrea piztuz.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Praga



ARITZ GALARRAGA

Danubioko urek utzitako ahozapore gozoa erabat ez galtzeko, Claudio Magris jarraitu dut irakurtzen, oso gauza diferente bat, edo ez hainbeste, *Alfabetos*, literaturari buruzko entseguak: (ia) denetarik dauka, egia esan, eta (ia) dena ona, lehen irakurketen katalogo moduko batetik, literaturak gaur konpromisoarekin izan beharko lukeen harremaneraino. Eta kezka bat oroz gain, bilduma hau ere zeharkatzen duena, Mitteleuropa deitu horretako literatura aleman hitzuna.

Adibidez, Pragan. Egungo Txekiar errepublikako hiriburuan. Praga dugu, dio Magrisek, mugako literaturaren adibide gailena. XIX-XX. mende arteko saltoaz ari da, Lehen Mundu Gerra aurretikoaz, Praga, Bohemiako aleman kokaleku antzinakoenetako bat, eslaviar nazio bateko hiriburu bilakatzeko bidean dago: alemanak, mende luzez kultura eramaile, botere edukitzaila, ghetto moduko batean itxita sentitzen dira, Praga soilik txekiar hiri gisa aurkezten hasi da, ia eskusiboki txekiera hitz egiten. Eta gero zeuden judutarrak, noski, txekiarren klase gorroto eta alemanen goranzko nazionalismoaren artean harrapatuta. Txekiar, aleman hitzun, judutar; krisi garaietan nabaritzen omen dira tentsio berezi batez mugaren ezaugarriak.

Praga, munduan ez dago bertan bizi eta hain gustura atzean utziko zenukeen hiririk, ez eta utzi bezain pronto hainbesteko gogo biziz itzuli nahiko zenukeenik ere. Hiria jasateko ezintasuna dago batetik, eta bera gabe egotekoa bestetik. Nekez hitz egin daiteke Pragan nazio puruki aleman batez eta nazio puruki txekiar batez, ezpada hobeki pragar nazio batez. Edo aberririk gabeko idazlea litzateke, bestela, Pragakoa. Kafka bera, luze gabe, zeinaren arabera Praga guztion erbestearen sinbolorik garaiena den, eta, ondorioz, norberaren aberriaren egiazko aurpegia. Erbestea genuke, hartara, eta azken buruan, aberri posible bakarra. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“MATXISMOARI AURRE EGITEKO BALIAGARRIA IZATEN JARRAITZEN DU SKOLAEK”

MARIA SOLANA, GEROA BAI-KO PARLAMENTARIA

Tramitazio akatsa argudiatuta, Nafarroako Auzitegi Nagusiak atzera bota du Skolae hezkidetzaren programaren ezarpena. Programak “kultura parekidea” sustatzea eta indarkeria sexisten arloan heziketa bultzatzea du helburu, eta Maria Solana Hezkuntza sailburu zela ezarri zuen Nafarroako Gobernuak. “Navarra Sumarena izan ezik, gainerako alderdi politikoen babesa du Skolae eta auzitegiaren ebazpena kontrakoa izan arren, Skolae tresna baliagarria izaten jarraitzen du matxismoak egunez egun gizartean sortzen duen egoera bidegabeari aurre egiteko”. 2020/06/19



Berreraikuntza kapitalista



JUAN MARI ARREGI

Hemen dira Espainiako Estatu kapitalismoaren ordezkariak, baita Hego Euskal Herrikoak ere, gobernuari eta administrazio publikoari norabidea markatzeko, pandemiarekin lotuta gauden krisi ekonomiko, sozial eta sanitarioaren aurrean. Galerak sozializatuta, orain ez dute etekin pribatizazioa galdu nahi.

Horretarako, *Espainiako enpresak etorkizunaren buru* izeneko goi-bilera egiten ari dira Madrilen, eta ekainaren 24an amaituko da. Enpresa-talde handietako 130 enpresaburuk eta exekutibok baino gehiagok hartuko dute parte. Goi bilera horretan parte hartzen duten Ibx-eko enpresen 50 soldata onenak batuta, 200 milioi euro baino gehiago irabazi zuten 2019an; hau da, exekutibo bakoitzak batez beste 5 milioi euro kobratu zuen, langile baten batez besteko gastua baino 89,5 aldiz gehiago. Horiek dira berreraikuntza kapitalistaren etorkizuna diseinatzeko ari direnak.

Hori bai, hain basatia izan ez dadin, berreraikuntza horretan "kapitalismo berriaren" tesia betetzen ari dira, bata-suna, adostasuna, elkarriketa soziala, parte-hartzea, abertzaletasuna eta enplegu egonkor zein kalitatezkoa ahotan darabilte. Hala ere, ez dute ahazten beren nortasun estruktural kapitalista. Horregatik, inbertsiorako pizgarriak eta zerga-pizgarriak eskatzen ari dira altxor publikotik. Hau da, baldintza horiek eskatzen ari dira lan-erreformari eustea, kaleratze jendetsuak merkatzea eta lan-mugikortasuna eta zergak jaitea, gobernuaren iragarpenen aurrean. Ez gehiago, ez gutxiago.

Enpresen goi-bilera kapitalista horrek Espainiako Estatu osoko ezkerreko talde sozial, politiko eta sindikalen berehalako erreakzioa eragin beharko luke, galerak berriro sozializatzea eta etekin pribatizatzen jarraitzea eragozteko. ●



BAIONA HIRI IREKIA

Auzapezgaiari ala alderdiari so egin?

▬ JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Baionan bizi den abertzale ezkertiarrek giroa tentsiodun sentitzen du bigarren itzuliaren bezperan. Baionaz kanpo denak "zer demontre pasatzen da Baionan?" galdera du mihi puntan. Etxeto eta Etxegaraien artean izan den hautua, ezkerre eta eskuinaren artean. Abertzale batzuek ezker-eskuin eskemari loturik, Etxegarai kanporatu eta ezkerre nahi dute boterean –BBE *Baiona Berde eta Elkarkidea* Etxetori juntatzeko aldekoen argudioa zen, batzarraren bozketan gutxiengoan kausaturikoa–. Etxegarai sostengatzen duten abertzaleek, eskema horretaz haratago joan eta auzapezgaien posturari so egiteko premia ikusten dute. Argi da auzapezgaiari so eginez, ezker-eskuin kartak nahasirik direla: ezkerreko Etxeto AHTaren alde da, eskuineko Etxegarai kontra; etorkinen alde aritu da Etxegarai, prefetaren aurka egiteko ausardia politikoa gainera –Pausa harrera gunearen sorrera izan da ikusgarriena, baina aitzin goraiatu ez zituen neurri asko hartu zituen, etorkinek zein laguntzaileek estimaturikoak–. Bake prozesuaren aurka da Etxeto, asko egin du Etxegarai, presoan auzia konpontzeko bilerak Justizia ministerioan errepikatuz. Euskara politikari dagokionez argi da Etxegarai ez duela nahikoa egin eta hitzemandakoa ez duela gauzatu. Baina Etxeto ez doa hobeto. Ondoko osagaia ere hor da: 2014an Baionako eskuinaren Grenet dinastia Etxegaraien aurka aritu zen kanpainan eta Etxeto agertu zaigu duela hiru aste, merkatu egunez terrazan Grenetekin kafea edaten, guztiok ikusteko gisan. Aurten ere, eskuin historikoaren sostengua nora doan zalantzan jartzeraino. Auzapezak inguruan taldea duela diote Etxetoren aldekoek, bai –baina– auzapezak asko egin duela diote Etxegaraien aldekoek. Giroa are elektrikoagoa da, jakina delako ekainaren 28ko emaitzak Baionatik haratago ukanen dituela ondorioak, Euskal Hirigune Elkargoan zein presoan auziari dagokionez Paris mugiarazi nahian dabilen ordezkartzan.

26 bozkek banatu zituzten Etxeto eta Etxegarai 2014an eta aurten ere oso tinko da afera. Abertzaleen botoak ukanen du eragina: ezker-eskuin eskemari begira diren eta auzapezgaiari so diren arteko aldeak ukanen du pisu handia. ●

BRISTOLDARROK:

JAUNTZO HONI KALTE-ORDAINAK PAGATU DIZKIOZUE 1833AN ESKLABOAK LIBRE UZTEAGATIK

Ekainaren 7an Bristoleko portuko uretara jaurti zuen jendetzak hiriaren historiako ongile handienaren fama daukan Edward Colstonen brontzezko estatua; mundu guztiak ikusi du unea bidez. Egun batzuk lehenago AEBetan poliziak George Floyd herritar beltza hil izanaren kontrako protestan ari ziren munduko beste hainbat hiritan bezala Bristolen ere, baina hemen Colston esklabo-jabe filantropoa bereziki gorrotatzeko motiboak zeuzkaten.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Bristolera (Erresuma Batua, 464.000 biztanle) iritsi den turistak ezin-ingo du alde egin ikasi gabe Edward Colstonen izena: Colston kontzertu aretoa, Colston dorrea, Colston etorbidea, kalea, ospitalea, udaletxearen aurrean Edward Colstonen harrizko monumentua, St Mary Redcliffe elizako beirate sasi-gotikoetako bat, eskolak, zahar-etxeak...baita *Colston bun* opila ere!

Alabaina, ekainaren 7an Edward Colstonen irudia karriketan barrera arrastaka eramanda kaian urperatu zutenek bazuten motiborik gizonarekin haserre egoteko: larruazal beltzekoek, notable filantropo hura haien arbasoekin trafikatu aberastu zelako, eta beltzek bezala zuriek ere duela urte oso gutxi arte pagatzen aritu direlako Colston eta beste esklabo-jabeei duela ia bi mende gatibuak aske uzteagatik gobernuak emandako kalte-ordainak. Harrigarria, baina egia.

Edward Colston (1636-1721) merkatariz gain Londresko Legebiltzarrean parlamentari aritu zen bere bizitzan. Esklaboen salerosketan aberastu zen, Bristoleko beste zenbait handiki bezala: Afrikara espedizioak antolatu jendeak harrapatu eta esklabo bihurtzeko, haiek itsasontziz ekarri lehenbizi Bristolera eta hemendik Ameriketara, funtsean Karibeetara. Bihotzik ez omen duen diru zikinez aberastu ondoren, ordea,



EDWARD COLSTON. ESKLABO-JABEAREN BRONTZETZKO IRUDIA BRISTOLEKO KAIKO URETAN HONDORATU ZUTEN EKAINAREN 7AN, ARRAZISMOAREN KONTRAKO PROTESTAN ARRASTAKA ERAMAN OSTEAN. UNEA GIULIA SPADAFORAK JASO ZUEN ARGAZKIAN.

zerurako lasterbidea segurtatu nahi izan zuen Colstonek filantropia eginez, munduan beste esklabo-saltzaile gehiagok –Jose Matia Calvo batek kale, eraikin, zahar-etxe eta gisako obra karitatezkoak laga zituen Cadiz eta Donostian–egin zuten legez. Historiak esklabozale odoltsu ez baina ongiletzat oroitu zezan jokaldia ondo atera zitzaion Colstoni... handik urte askora prentsan azaldu

zen arte mitoa gorrotagarri bilakatuko zuen datu bat. 2018ko otsailaren 16an titulu hau zekarren *Bristol Post* egunkariak: “*Ogasunak aitortu duenez, Bristoleko herritarrek 2015a arte aritu dira ordaintzen esklabo-jabeei ordaintzeko egindako zorra*”. Alegia, 1833an Erresuma Batuan legez esklaboak libre utzi zituztenean, agintariak kalte-ordainak pagatu zizkietela –esklaboak kentzea

OÑATE EUSKAL JATORRIKO KONKISTATZAILE KRUDELAREN ESTATUAREN AURKAKO PROTESTAN BI MANIFESTARI TIROKATU DITUZTE

LANDER ARBELAITZ

Albuquerque hirian, AEBetako Mexiko Berria estatuan, Juan Oñate konkistatzailearen brontzezko estatua kentzen saiatu ziren manifestariak maiatzaren 15ean. Zuri supremazisten milizia armatu batek, ordea, tiro egin zuen eta bi pertsona zauritu zituzten. Poliziak erasotzailea atxilotu zuen eta gas negar eragilea bota manifestariei.

Mexikon jaiotako gipuzkoar jatorriko konkistatzailea izan zen Oñate. Mexiko Berria konkistatzeko espedizioa antolatu zuen 1595ean. 1599an Acomako Sarraskiagatik ezaguna da. Beren lurrak lapurtu nahi zizkietela jakin zuten Acoma herriko kideek 11 espainiar hil zituzten, Oñateren iloba barne –Juan de Zaldivar–. Oñatek orduan Acoma herriaren aurkako erantzun basatia agindu zuen. Herria suntsitu eta 800 eta 1000 Acoma herritar hil zituzten, horietatik 300 zibilak.

Bizirik atera ziren 500 bat pertsona epaitu zituzten Oñate buru, eta 20 urteko esklabutza zigortu zituen, eta gainera, 25 urtetik gorako gizon guztiei oin bat mozteko agindu zuen. Horrez gain, bi pertsonari esku bana moztu eta joan zitezen agindu zien, denek jakin zezaaten zer gertatzen zen espainiarrekin sartuz gero.

kapitala galtzea zelakoan– eta ordainke-ta hori egiteko hiriak hartu behar izan zuen zorraren ordainketa luzatu dela 182 urtez.

Askatasun eta eskubideak ez dira inoiz “gratis” lortzen. Aipatua izan da zein garesti pagatu zuen bere askatasuna Haiti uharteko errepublikak. Haitiko esklabo beltzek matxinatuta 1804an independentzia lortu zutenean, Frantziak 150 milioi erreko libera ezarri zizkion kalte-ordaintzat, galdutako ondasunen –kapital hutsa baizik ez omen ziren gizakiak barne– truke. Haitiarrek onartu beste aukerarik ez zuten izan, Frantziaren itsasontzi armatuen mehatxupean, beste herrialdeen boikotak itota. 1945a arte aritu zen Haiti Frantziari ordaintzen zor bidegabe hura, zeina gabe ezin baita ulertu Haitik XXIgarren mendean bizi duen miseria.

Bristoldarrek, ordea, txanponaren beste aldea ezagutu dute. Alegia, esklabo-jabeek derrigor kobratu behar zuten beren galera, azken aukeratzat baliatu zutela metropolian bertan pagaraztea beren herrikideei. Bristol zen, Londresen ostean, Britainia Handian esklaborik gehien erabiltzen zituen hiria. Horiek libre uztearen truke 1833an Londresko gobernuak jabeen pagatu zien 20 milioi libra, urte hartako aurrekontu osoaren %40 adina, gaurko prezioetan 308.000 milioi libra edo 343.000 milioi euro lirakeenak.

“WHITEWASHING” MASTERRA

Esklabismoa eta arrazismoa ikertzen ari direnek gardentasun legetara jota lortu zuten erakustea Britainiar Inperioaren ustezko eskuzabaltasun keinu hura –esklaboak libratzea– herritar xeheek pagatu zutela: 1833an aurrekontuak berdintzeko hartutako maileguaren azken ordainketa 2015eko otsailaren 1ean egin zuen Londresko gobernuak. Ogasuneko komunikazio arduradunari bururatu zitzaion herritarrak zoriontzea honela: “Gaur ere badaukagu ospatzeko ezusteko bat: zuek guztiok lagundu duzue esklabismoa amaizten zuen zergekin”. Sare sozialak sutu zituen mezuak.

David Olusoga historiagilea eta esklabismoaren kontrako militantea kexatu zen agintariak kalte-ordainok gauza normal eta zuzentzat jotzen zituztelako. Bristoleko udalean zinegotzi den Cleo Lake, arbasoetan esklaboak dauzkana, honela mintzatu zen: “Haserre nago. Dirua itzultzea eskatzen diet”. Gogorra da sinetsi beharra zure askazikoek esklabo

izatearen tragedia sufritu ostean, zuri ere egokitu zaizula herritar gisa haiek libre uzteko kalte-ordainak pagatu beharra esklabo-jabeen.

Esklabo-jabeak eta ez nolana hikoak. 2017an jauregi baten zahar-berritze lanetan kasualitatez aurkitu zituzten 1817tik 1823ra arte Philip John Miles enpresa-gizon eta parlamentarioaren kontabilitate paperak, zeinetan jasota baitaude haren 2.200 esklaboen izenak, adinak, hil zirenean zerk eragin zien heriotza eta... ihes egiteko arriskurik ikusten ote zitzaien. Miles familiak garai hartan azukre kanabera soroak zeuzkan Hanoverren (Alemanian), Kornuallesen eta Jamaikan, azukre fabrika bat ere bai Bristolen bertan. 1833an 2.200 esklabo horien jabeagoa galtzearen kalte-ordainekin Philip John Milesek King’s Weston House jauregi ikusgarria erosiko zuen.

“Iragana zuritzeko (*whitewashing*) master bat egin nahi baduzu –dio ironiaz David Olusogak– hemen aurkituko duzu onena. Bristoleko burges zintzokoz pozik erabili izan dute Colstonen filantropia bai beren aberastasunak eta bai hiri honek esklabo-komertzioan jokatu duten papera zuritzeko. Horiek atxiki dute bizirik Colstonen izen ona, horiek landu duten bezala faltsututako historia bat, omenduz haren filantropia eta ezabatuz esklabismoa. Hala lortu dute Colstonen izena Bristoli estu lotzea, eraikin eta instituzioen bidez. Aldiz, hark saldu eta erosi zituen esklaboak dira ezabaketa historikoaren benetako biktimak”. Cleo Lake zinegotziak eta Global African People’s Parliament erakundeak sinadura bilketa hasi dute Londresko gobernuari eskatzeko herritarrei itzul diezazkiela urte luzeotan esklabo-jabeen pagatutako dirutzak. Gobernuari zuzendutako idatzian diotenez, “nazkagarria eta erabat bidegabekoa iruditzen zaigu pentsatze hutsa Britainia Handiko herritarrok –esklabotzan zanpatutako arbasoen ondorengoak barne– parte hartu dugula ordainketa horietan zuek [agintariok] hala erabaki zenuelako”.

Jabe handi haiek aberastu ziren eta haien seme-alabek bezala bilobek geroztik gozatu dituzte antzinagoko aberastasunez gain, 1833an esklaboak galtzeagatik jaso kalte-ordainok. Esklabo libratu berriek berek ez zuten deus kobratu. Areago, lau urte gehiagoz lan egin behar izan zuten hutsaren truke, *aprendiz* bezala, azkenean beren buruak libre baina deus gabe kale gorrian aurkitzeko. ●

URDANETA "FRAIDE-KONKISTATZAILEAK" ORDIZIAN DUEN ESTATUA ERAISTEKO KANPAINA ABIAN

 AXIER LOPEZ

Carlos de Urabá kolonbiar jatorriko idazle eta dokumentalistak abiarazitako kanpaina da. Ordiziako sarreran Andres Urdaneta goratzeko jarritako estatua kentzeko eskaera zabaldu dute Argentinako Indymedian. Horretarako, Ordiziako EH Bilduko alkate Adur Ezenarrori eskutitz irekia luzatu diote.

2017an eskera bera egin zioten aurreko alkateari, EAJko Jose Miguel Santamariari.

Eskutitzean diotenez, Ordiziako monumentuak Andres Urdaneta omentzen du, "superheroi sakrosantua" balitz bezala. Haren aurrean berari begira bi indigena daude, bat belauniko, buruan lumak dituztela. Eszena umiliagarria eta lotsagarria dela diote, eta ezin dugula ahaztu Espainiako koroaren helburu nagusia ez zela ebanjelizatzea bakarrik, baita arpilatzea, lapurreta eta esklabotza ere.

Plaza publikoan Urdanetaren omenezko estatua erakusten jarraitzea probokazioa dela azpimarratzen dute. "Ordiziako herriak merezi du garrantzi eta karisma handiagoko figura historikoekin lotzea, eta ez espainiar inperialismoaren ordezkari batekin". Beren amorrua ulertzea espero dutela diote, ziur daudelako euskal herritarrok gauza bera egingo genukeela "Euskal Herriaren oroi-mena eta ohore ona" zikinduta ikusiko bagenu.


Andres Urdaneta (1508-1568) militarra eta elizgizona izan zen. Molukak konkistatzeko Espainiako Inperioak antolatutako espedizioan parte hartu zuen. Inbaditzaileek askotariko ankerkeriak egin zituzten uharte haietako aborigenen aurka.

Txinako itsasoetan espeziez ibilbidetaren bila egindako "abentura exotikoen" ondoren, Espainiara itzuli zen, eta Pedro de Alvarado konkistatzaile odolzalearen tropekin bat egin zuen. Alvaradok genozidioa eragin zuen Kuba, Mexiko, Guatemala, Salvador eta Hondurasko biztanleen artean. Tenochtitlan-Mexicoko Tenplu Nagusiko sarraskiaren erantzule nagusia izan zen 1520an. Pedro de Alvarado "heroiko eta ausarta" -kronista espainiarren arabera- izan zen Andres Urdaneta Espainia Berriko erregeordetzako postu garrantzitsuenetan jartzeaz arduratu zena. Urdaneta bilakatu zen esklabista eta torturaztaile Luis de Velasco erregeordearen konfiantzazko funtzionario, eta Moluketara eta Filipinetara konkista espedizio berriak egiteko eginkizuna eman zion. Espedizio hauek, pirateria ekintza arbuigarritzat jo behar dira, euren misioa, Espainiako Inperioaren jabetzak eta Karlos V.a eta Filipe II.a-ren handitasuna handitzea baitzen.

1553an Urdanetak San Agustinen ordena erlijiosoan sartu zen Mexikon. Han, fraide ohiturak bere egi-

nez, espainiar konkistaren egiazko ikur bihurtuz: fraide-konkistatzailea, ezpatarekin eta gurutzarekin Espainiako Inperioaren handitasuna goratzen duen misiolari-gerlaria.

Euskal Herrian eta Espainian duen ospea Miguel Lopez Legazpirekin duen loturagatik da. Legazpik Urdaneta eraman zuen Filipinetara eta horretarako Urdanetak 33 gipuzkoar aukeratu zituen konkista horretan parte hartzeko ("altxor eta esklaboz betetako paradisu, lurtean"). Ezpata eta gurutzea lagun, bandera inperiala goratuz Filipinak mendeant hartu zituzten. Zenbat indigena filipinar hil ote zituzten inbasio kriminal honetan? Ez dakigu eta ez dugu inoiz jakingo.




ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



KONPLIZE SAREA ERATUZ, ZIENTZIA FIKZIOA OSO UNE POLITA BIZITZEN ARI DA EUSKAL HERRIAN



Zientzia fikziozkoa zirudien errealitatea izan da gure elkarrizketa. Bilbiko Xake espazioan (Bilbo) ezagutu genuen elkar, pandemia-aurreko garaian, gai distopikoak ardatz zituen bertso-saio baten aitzakian. Eta orain pandemia mundial baten testuinguruan pantailatik pantailara hitz egin dugu zientzia fikzioaz eta bere balioaz. Izan ere, pentsamendu espekulatiboa, askapenerako tresna gisa ulertzen eta erabiltzen du Arrate Hidalgo.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Zientzia fikzioaren inguruan egiten duzu lan azken urte mordoak batean. Nola iristen da bat zientzia fikziora, edo hobeto esanda, nola iritsi zinen zu?

Irakurle gisa, ni bi pausotan iritsi nintzen. Lehenengo ohiko zientzia fikzioa ezagutu nuen: Ray Bradbury, Arthur C. Clarke, Isaac Asimov... Beti gomendatzen diren horiek. Eta Bradburyrekin ikusi nuen zientzia fikzioa poetikoa izan zitekeela. Oso lirikoa. Eta hori gustatu zitzaidan. Eta bigarren pauso batean, jakin nuen bazegoela gauza bat zientzia fikzio feminista esaten ziotena. Eta hor bai, hor maitemindu egin nintzen. Joanna Russ irakurtzean konturatu nintzen bazego-

la zientzia fikzio bat niretzat une hartan berebizikoak ziren gaiak buruz idazten zuena. Eta literatura horrek asko lagundu zidan nire kontzientzia feminista garatzen.

Zientzia fikzioaren bidez egin omen zinen feminista. Nola gertatu zen hori?

Ba begira, gaur egungo feminismoarekin talka egingo lukeen liburua da esan dizudan Joanna Russ-en liburua, *The Female Man* (Gizon emea). Baina nik irakurri nuenean ez neukan kontzientzia oso konplexua feminismoari zegokionez. Eta hain da liburu oldarkor eta erradikala inpresio izugarria izan zuela nigan. Hor-

tik beste istorio batzuk irakurtzera iritsi nintzen, eta batez ere, izateko beste aukera batzuk eskaintzen zituzten liburuak aukeratzen joan nintzen, esaterako *The Left Hand of Darkness* (Iluntasunaren ezker eskua), Ursula K. Le Guin-ena. Nire queer izatearen garapena irakurtzearen bidez gertatu zen, eta nire kontzientzia feministarekin batera sortzen joan nintzen liburuen bidez. Zeren garai hartan ez neukan sare bat, edo komunitate bat, feminista queer aktibista zenik. Liburu hauei buruzko informazio bilaketan ezagutu nituen liburu hauei buruz hitz egiten zuten pertsonak, liburuok argitaratzen zituztenak, eta hor hartu zuten nire feminismoak forma solidoa-



Arrate Hidalgo

BILBO, 1987



Arrate Hidalgok ingeles filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, eta Erdi Aroko literaturan egin zuen espezializazioa Leeds-eko Unibertsitatean (Erresuma Batua). 2014tik zientzia fikzio feminista editore da Aqueduct Press argitaletxe estatubatuarrean, eta itzultzaile, idazle eta kultur aztoratzaile gisa aritzen da, besteak beste, *Qué haría Barbarella* podcastean, *AnsibleFest* Zientzia Fikzio Feministaren inguruko festibalean, eta Zientzia Fikzio Feminista Zarrutzen (ZFFZ) irakurle taldean. Berriki itzuli ditu Ursula K. Le Guin-en *Neska basatiak* eleberri laburra (*Las niñas salvajes*, Virus argitaletxea) eta Octavia Butleren *Odolezko Alaba* ipuin bilduma (*Hija de sangre*, Consonni argitaletxea).



goa. Horregatik zor diot nik zientzia fikzioari feminista izatea. Eta horregatik ikusten dut garrantzitsua nire lana ere. Zeren batzuetan pentsatzen dut: “Zergatik ari naiz honetan lanean? Zertarako balio du? Hainbeste arazo munduan eta ni hemen, jendeari asmatutako istorioak irakurrarazteko ahaleginean...”. Baina nire bizitzan erabakigarria izan zen, eta hortik dakit eragin handia izan dezakeela.

Zientzia fikzio feminista, queer-a eta dekoloniala lantzen dituzu.

Zer da zientzia fikzio feminista, zer querra eta zer dekoloniala?

Zergatik dira interesgarri?

Badago zientzia fikzio bat patriarkatua ezezik zis-heteronorma eta neokolonialismoa zalantzan jartzen dituen.

Elkarrekiko loturan garatu dira bide horiek, eta gaur egun ezin dira erabat bereizi. Zientzia fikzio feminista, hasiera batean, feminismoaren bigarren olatuan idatzi zen zientzia fikzioari deitu zitzaion, eta idazle jakin batzuekin lotzen da gehienbat –Ursula K. Le Guin, Pamela Zoline, James Tiptree, Jr...–. Gero zientzia fikzio queer-a garatu zen. Arlo horretan Samuel R. Delany da erreferentzia nagusietako bat. Berak pertsonaia queer-en bidez bere garaiko New Yorkeko bizimoduak eta arazoak agerrarazten zituen bere testuetan. Adibidez, esaten da berak egin ziola lehenengo erreferentzia hiesari literaturan –literatura zabalean, ez zientzia fikzioan soilik–, bere *Flight from Nevèrÿon* (Hegaldia Nevèrÿondik) liburuan. Gaur egun, dena dela,

hamaika forma hartu ditu queer literaturak ere eta autore horietako asko dekolonialitatearekin ere lotzen dira. Zientzia fikzio dekolonialak zientziaren definizio mendebaldarra bera jartzen du hankaz gora eta horrekin batera, naturalizatu ditugun beste hainbat kontzeptu eta kategorioa. Horrek egiten du bereziki interesgarri eta garrantzitsu, nire ustez. Adibidez, kultura indigenetatik edo kultura anticolonial edo postkolonialetik idazten duten idazleek agerian uzten dute zientzia, etorkizuna, denbora eta horrelako kontzeptuak irudikatze gure modua modu jakin bat dela, Mendebaldeko ikuspegira mugatua. Eta alternatibak proposatzen dituzte, kontzeptu tradizional edo berrien bidez. Eta ikuspuntu horiek lotuta daude, ezinbestean, feminismoarekin, bat egiten dutelako, hain zuzen, kontzeptu horien ulerkerak eta mundu ikuskerak jakin bat zalantzan jartzeko helburuan.

Halako problematikei buruz serio hitz egiteko gehiago irudikatzen dira saiakerak zientzia fikziozko nobelak baino...

Le Guinek esan zuen zientzia fikzioa idazten duzunean errazagoa dela irakurleak pentsatzea irudikatzen duzun hori ez dela egiatzkoa, eta beraz, ez daukala harremanik bere errealitatearekin.

Batek erne egoteari uzten dio, eta hortik, ideiak modu zeharrago batean iristen zaizkio irakurleari. Horretan oinarritu da zientzia fikzio feminista asko, hau da, rolei buelta ematean. Emakumeekiko zapalkuntzak, esaterako, itxura erridikulua hartzen du zapalkuntza bera gizonen kontrakoa bihurtzen denean. Eta begi-bistakoa bihurtzen da zein absurdua den jendea bi generotan banatzea eta banaketa horrek hainbeste min sortzea.

Zuri irakurri dizut Walidah Imarisha idazle eta aktibista estatubatuarren esana dela aktibismoa bera zientzia fikzioa dela, etorkizunera begira espekulatzean oinarritzen delako. Alderantziz ere esan liteke? Zientzia fikzioa aktibismoa izan daiteke?
Bai, uste dut baietz. Zientzia fikzioak balio digu inspiratzeko, ideia berriak eza-

gutzeko, edo entretenitzeko –zergatik ez–, errealitateak gainezka egiten dugunean. Eta plazererako. Baina hori baino gehiago ere bada. Zientzia fikzioa sortzen dugu gudan badagoelako errealitatea eraldatzeko eta hankaz gora jartzeko gogo hori. Borrokatzeko gogo, azken finean. Zientzia fikzioa da borroka horrek hartzen duen beste forma bat.

Egia esan behar badizut, ezjakintasunetik, “zientzia fikzioa” esan eta idazle gizonak baino ez zaizkit etortzen burura. Eta genero bezala ere uste dut bereziki maskulinotzat irudikatu izan dudala...

Emakumeek beti idatzi dute zientzia fikzioa. Hasieratik. Kontua da jende asko duen zientzia fikzioaren irudia erabat lotuta dagoela 40-50eko hamarkadetan –“urrezko aroa” esan zaion garaian– idatzi zen zientzia fikzioarekin. Garai hartan AEBen eta SESBaren arteko Gerra Hotzaren harira garatzen ari ziren arrerapen teknologikoen eta bultzada inperialisten inguruko zientzia fikzio pilo bat ekoitzi zen, teknologian eta zientzia teorian oinarrituta. Hor pertsonaiak ez ziren inportanteak eta emakumeak ziren emazteak, alabak edo pertsonaia sexi eta enigmatikoak, merkatu hori gizonetzko irakurleei zuzenduta zegoelako. Baina emakumeek zientzia fikzioa irakurtzen zuten, noski, eta baita idatzi ere, batzuek ezizanak edo inzialak erabiltzen zituzten arren. Hala ere, emakumeek idatzitako zientzia fikzioak ez zuten agerikotasunik berreskuratu 60ko hamarkadan Gerra Hotzaren testuinguru politiko eta soziala lausotu zen arte. Orduan, zientzia fikzioa gizonen arloa dela esatea ez da gezurra, baina esan genezake batez ere eremu sozialean izan zela horrela: elkarteetan, sarietan, konbentzioetan... argitaratzaileak ere gizonak ziren. Baina horrek ez du esan nahi emakumeak ez zirela ari idazten eta argitaratzen.

Zientzia fikzioa, nobela errealistaren aldean, genero literario gisa bigarren mailakotzat jotzen da maiz. Zergatik gertatzen da hori?
Balio literarioa ez da literatura errea-

listaren ezaugarria ere, aitor dezagun. Nobela errealista, gainera, zientzia fikzioaz geroztikakoa da. Zientzia fikzioa sortu zen ilustrazioko literaturari kontra egiten zion nobela gotikoaren baitan, XVIII. mende bukaeran eta XIX. mende hasieran. Erromantizismo bete betean, nobela gotikoak ilustrazioaren printzipioen aurka egiten zuen argiki, kaosaren eta irrazionaltasunaren alde, ordena eta arrazionaltasuna ukatuz, estetikoki zein kontzeptualki. Mary Shelley-ren *Frankenstein* da, Asimoven hitzetan, zientzia fikziozko lehen nobela. Eta zergatik ez da nobela gotiko hutsa? Istorioaren eta gatazkaren mamia Shelleyren garai-ko ikerkuntza zientifikoan oinarrituta dagoelako, besteak beste. Esan daiteke *Frankenstein* bigarren mailako nobela bat dela? Nobela errealistaren eta ez errealistaren arteko bereizketa hori, gainera, orain dela gutxiko kontua da. Le Guinek dio imajinatzeak, asmatzeak



DEKOLONIALA, INGELESEZ?

Autore interesgarri asko dago zientzia fikzio feminista, dekolonialean –Nalo Hopkinson, Grace Dillon, Nnedi Okorafor, Rebecca Roanhorse, Jaymee Goh, Nisi Shawl, Joyce Chng, Darcie Little Badger...–, baina autore hauek guztiek, ipar-amerikarrak ez direnek barne, ingelesez idazten dute. Arreta jasotzen dute ingelesez idazten dutenak, jatorria edozein izanik ere, feminista, queer edo dekoloniala izan arren. Ingelera da zientzia fikzioaren jabe, Latinoamerikan izan ezik –hor daukagu Laura Ponce eta Teresa Mira de Echeverría Argentinan, Maielis González edo Elaine Vilar Kuban, Gabriela Damián Miravete Mexikon, Liliana Colanzi Bolivian...–. Eta, noski, hauek gaztelaniaz idazten dute. Nire ustez hor dago muga kolonial garrantzitsuenetako bat. Ia ikusezina da eta ez da ia inoiz aipatzen, ezta zientzia fikzio zaharmindu horri erantzuten dioten idazleen artean ere.

eta horrekin gozatzeak ez dakarrenez bere horretan etekinik, joera puritano bat egon dela, imajinazio hori kamus-teko, batez ere gizonei –emakumeei, ez direnez hain arrazionalak, utzi izan zaie erromantzeak irakurtzen, eta abar-. Hori fikziozko edozein sorkuntzarekin gertatu da. Niretzat oso arrotza da Le Guinek orduan esaten zuena gaur egun nobela literarioarekin lotzea, orain duen prestigioagatik. Baina momentu hartan, 70eko hamarkadan, Le Guinek Tolstoi eta Tolkien esaldi berean jartzen zituen. Izan ere, zientzia fikzioari gertatzen zaio badirudiela ez duela ezertarako balio. Badirudielako existitzen ez den zerbait hitz egiten duela, nahiz eta zientzia fikzioak ere, berez, orainaldiko errealitateaz hitz egiten duen.

Zein da euskarazko zientzia fikzioaren egoera? Badago emakumeek idatzitakorik? Zientzia fikzio feministarik?

Badago bai. Mayi Pelot ez da nahikoa aipatzen. Nire kuttuna da. Badaude beste autore batzuk bere aurretik ere, baina [80ko hamarkada hartan] Mayi Pelotek sekulako konpromisoa erakutsi zuen zientzia fikzioarekiko. Zientzia fikzioa idatzi zuen



ia soil soilik. Poesia eta saiakerak ere bai, baina batez ere zientzia fikzioa. Politena da berak euskara 23 urterekin ikasi zuela, eta berak idazteko erabiltzen zuen euskara batua zela. Garai hartan euskara batua zientzia fikziozkoa zen, azken batean: artifizialki sortua, etorkizunera begira. Mayi Pelot aitzindaria izan zen euskara batuan zientzia fikzioarako lengoia bat sortzen. Hala dio Itxaro bordak Sareinak taldeak eta Maiatz argialetxeak atera duten Peloten lanen berrargitalpenean. Biziki inspiratzen nau horrek.

Zer ari da gertatzen euskarazko zientzia fikzioan gaur egun?

Gazte literaturan Garazi Albizua eta Yolanda Arrieta, dauzkagu, esaterako. Eta nola ez aipatu Itxaro Borda! Atera berri du *Kripton 85*, zientzia fikzio klimatiko anti-nuklear, queer eta feminista. Gustura ari naiz irakurtzen, *Elhuyar* hiztegiarekin batera. Eta badago proiektu oso polit bat, *Zirriborroak eta gero* izenekoa, Azala Kreazio Espazioak bultzatuta Araban garatzen ari direna. Lurralde zehatz horretan gaur egun martxan dauden alternatiba politiko-sozialen inbentarioa egin, eta, abiapuntu horretatik, alternatiba horietako bat etorkizunearan proiektatzera gonbidatu dituzte hainbat idazle. Katixa Agirrek, Danele Sarriugartek eta Iban Zalduak idatzi dituzte ipuinak oraingoz, eta Karmele Jaiok idatziko du hurrengoa. Ana Morales ere beti egon da hor, *Xerezaderen artxiboa* literatur podcasta elikatzen, besteak beste. Orain dela gutxi Magdalena Moujan Otaño-ren *Gu ta gutarrak* ipuina grabatu dute podcasterako. Berak gaztelaraz idatzi zuen, –Argentinan jaio zen 1926an–, baina Pello Mari Otaño bertsolari zizurkildarra-

ren biloba zen. Familia bati buruzkoa da. Kide guztiak oso azkarrak dira, eta denboraren makina bat asmatzen dute euskaldunen jatorria zein den deskubritzeko. Bikaina da, oso barregarria. 1968an, Argentinako zientzia fikzio alorreko ipuinen Sari Nagusia eskuratu zuen eta Espainian Fraga Iribarne, informazio ministro frankista zenak, zentsura ezarri eta editatuta zegoen ipuina baitu zuen, “Espainiaren batasunaren aurka atentatzen zuelako guztiz”. Honetaz guztiaz gain, AnsibleFest zientzia fikzio feministaren inguruko festibala ere hor dago, eta hor hamaika egitasmo mamitzen da... Orokorrean oso momentu polita bizitzen ari gara Euskal Herrian zientzia fikzioari dagokionez. Konplize sarea eratzen ari gara.

Irakurri dizut zientzia fikzioari esker euskararekiko inoiz izan ez duzun harremana duzula orain. Horrek ere zientzia fikzioa dirudi...

Mayi Peloti eta Zarauzko irakurle taldeari zor diet hori. Peloten lanaren haritik tira egin eta lagun berriein aurkikuntzak partekatzen joan ahala, nire euskararekiko harremana berpiztu zen. Euskarazko zientzia fikzioa irakurtzen zuten edo irakurri nahi zuten pertsonak ezagutu nituen, eta pixkanaka, elkarrizketaz elkarrizketa sareak sortuz joan ginen. Euskarazko bizimodu bat aurkitu dut zientzia fikzioaren jiran. Oraintxe bertan zurekin berbetan baldin banago, Danele Sarriugarterekin zientzia fikzio bertso saio feminista bat antolatu genuelako da. Ni kanpora atera nintzen zientzia fikzio bila, nirekin ekarri dut Euskal Herrira, eta bere bidez iritsi naiz euskarara berriro. ●

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



Sasikumeen 'capo'a



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA

2011ko maiatzaren 27an Jordi Arasa Viñas Mossos d'Esquadra inspektoreordea zen, eta ARROko buruzagiordea. Talde horrek, besteak beste, istiluen aurkako funtzioak ditu. Egun hartako irudiek munduari bira eman zioten. Arasak eraso egiten zien lurreen eserita Katalunia plazako M-15eko kanpaldia hustea eragozten saiatzen ari ziren pertsoneri. Emaitza: 121 manifestari zauritu, plaza berrokupatuta eta gaur egunera arte oso eztabaidatua den ordena publikoaren eredu bat.

Arduretatik apartatu ordez garai hartako gobernu autonomikoak, Artur Mas buru eta Felip Puig Barne Sailaren arduradun zituena, ekintza justifikatu eta bere egileak goratu zituen. Hori dela eta, azken hamarkadan eskubideen urraketa etengabeak ikusi ditugu Bartzelonako herri mugimenduen protesta mota guztien aurka Arasaren eta bere gizonen eskutik. Etxegabetu dituzten auzokide ugariaren atari aurreko erresistentziatik hasita, duela aste gutxiko Vila de Gràcia plazako gertakaria. Konfinamenduaren osteko lehen elkarretarazteetako batean neska gazte bat atxilotu zuen Arasak, mobilizazio herritar baten protagonista sadiko bihurtuz -enagarren aldiz-.

Jakin gabe, agian egun hori izan zen ustez zerbitzatu behar duen jendartearen eskubideak jarrera arroan zapaltzen ikusiko dugun azken eguna -aldi

M-15eko kanpaldia
husten saiatu eta
bederatzi urtera,
Bartzelonako Auzitegiak
bi urte eta lau hilabeteko
kartzela zigorra eta
gaitasungabetzea ezarri
dio joan den astean

baterako behintzat-. M-15eko kanpaldia husten saiatu eta bederatzi urtera, Bartzelonako Auzitegiak bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra eta gaitasungabetzea ezarri dio joan den astean, betiketutako bi lesio delitu egotzita -bi, besterik ez-. Hori guztia, egun hartan poliziak eraso egin zien 57 laguneren kemenari eta inoiz amore eman ez duen abokatu taldeari esker, kereila kolektiboa aurkeztu zutenak akelarre errepre-sibo harengatik.

Hurrengo egunean, Mossoen komisario buruak TV3 telebistan iragarri zuenez, Arasa ordena publikoko egin-kizunetatik kanpo geratu zen, Auzitegi Gorenak Arasaren abokatua -Generallitateko diru publikoarekin ordaindu-

ta- prestatzen ari den helegitea aztertu eta zigor irmoa ezarri bitartean. Aurreikuspen bat egitera ausartzen naiz: ez du inoiz espetxea zapalduko. Baina argi daukat: hala ere, merezi izango du.

Azken urteotan kazetari gisa ikusi ditut manifestarien eta polizien aurkako epaiketa kontaezinak, joan den otsailan Arasaren aurkako epaiketaren hiru auzi saioetan izan nintzen. Saioz saio egiaztatu dut sistema judizialak polizia-kidegoak babesten dituela, arduradun politikoei txalotzen dituzten modu berean. Adibide argigarri bat: epaiketa egin ondoren, Arasa inspektore mailara igo eta Bartzelona osoko ARROen buru bihurtu zen.

Horregatik uste dut dela hain garrantzitsua epai hau, inoiz beteko ez badu ere. Partida beren jokalekuan irabaztea lortu da, beren lotsak publikoki erakustea, beren ekintzak gutxiestea eta babesten dituen sistema barrutik seinalatzea. Arasaren biktima askok ez diote inori kartzelarik opa, ezta berari ere. Ez dute uste ere justizia egin denik, benetan bilatuko balute ez baitzuketen inoiz auzitegietara joko. Ez isiltzea erabaki zuten, ez besterik. Eta orain, krisi hau aberatsek ordaindu behar dutela oihukatzeke berriz ere kalera irteten direnean, Arasak bulegotik pentsatuko ditu, larrituta, zigorgabetasunaren aurkako borrokan atsedunik hartuko ez dugun kideak gogoan. ●

Genealogia feminista



ANTTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Tabu itzela urratzen ari ginelakoan publikatu genuen 2013. urtean lesbianen arteko indarkeriari buruzko monografiko bat *Pikara Magazin*-en. 2017. urtean, *Sangre Fucsia* irratsaio feministak frankismoaren bukaerako eta Trantsizioko lesbianen borrokei buruzko saio bat prestatu zuen, eta horren bidez jakin genuen 80ko hamarkadako aldizkari lesbofeministetan dagoeneko jorratzen zutela gai hori.

Adineko feministek maiz leporatzen diete gazteei beraien memoria falta: “Aluak elkar esploratzeko tailer bat? Lesbofobiaren aurkako herri musukada bat? Horrelako ekintzak 80ko hamarkadan egiten genituen!”. Eta gazteek oldarkor erantzun ohi dute: “Ja, baina ni 80ko hamarkadan ez nintzen jai”.

35 urte ditut eta gero eta gehiago ulertzen dut nagusien amorrua eta, are gehiago, lotsaren lotsaz onartzen ari naiz genealogiaren aldetik ditudan gabeziak. Gakoa da belaunaldien arteko transmisioa egunerokoa nola indartu.

Apustu hori badago, esaterako Miren Aranguren, Edurne Epelde eta Iratxe Retolazak idatzitako *Gure genealogia feministak*. Baina esango nuke memoria

historikoaren ildoak ez dela salmentetan arrakastatsuenak. Bilbon Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroa dugu, baina zenbatetan joan gara Bizkaiko feministok, ez bada lan akademikoetarako bibliografia eskuratzera?

Mari Luz Estebanek egungo mugimendu feministaren dinamiken inguruko kezka mordoa adierazi ditu *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* saikeran (LISIPE bilduma), baita indarguneak aitortu ere. Ezinegonen artean, bereziki interpelatu nau feminismoan aditu eta iritzi-emaielen figurek hierarkia eta elite berriak sortu izanaren kezkak. Azaldu du historikoki feminismoaren ezaugarri bat izan dela ezagutzaren ekoizpen kolektiboa sustatzea eta anonimotasunaren aldeko apustua egitea. Adituen ikusgarritasunerako joera lotu du “feminismoa kontsumogai” bihurtu izanaren ideiarekin: hitzaldi feministek publiko handia dute, baina gutxi dira astero asanblada feministetan militatzen dutenak. Joera horrekin, bere ustez, feminismoak ikusgarritasuna lortu badu ere, “entzule/ikusle/hartzaile eta aktibisten arteko harremanak asko desorekatu zaizkigu”. Gaineratu du nekezagoa dela taldeek sinatutako

testuak zabaltzea aditu eta iritzi-emaile feministenak baino. Hala da hedabide tradizionaletan eta, are gehiago, digitaletan. “Nola konpentsatu, nola neutraliza daiteke hori?”, galdetu du.

Uste dut hedabide feministok, mugimendu feministaren aliatu izan nahi badugu, kolektibotasunaren eta anonimotasunaren aldeko apustu hori presente izan behar dugula eta talde ekoizpenak zabaltzeko bideak esploratu, nahiz eta kazetaritza kulturarekin talka egin.

Eta norbanako gisa, nola konpentsatu kazetari feministon sinadurak duen ikusgarritasuna? Bada, genealogia feminista ezagutuz eta izendatuz. Aurrekoan esan nuen: aditu edo iritzi-emaile baino, bitartekari, bideratzaile, zubi papera betez.

Autokritikarekin jarraituz, noizbait esan dut Mendekotasun Legearen murrizketek ez dutela mugimendu feministaren aldetik arreta nahikoa jaso. Bada, Estebanen liburuaren bidez jakin dut Bizkaian Mendekotasuna dutenak Laguntzeko Euskal Sistema Publiko baten aldeko Plataforma feminista existitu zela 2005-2008 urte bitartean (ni 2009. urtean sartu nintzen mugimendu feministan). Orain badakit eta kontatu dezaket. ●

Herria nork ordezkatu



BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA
 IRAKASLEA ETA
 IKERTZAILEA

Herriak bakarrik ordezka dezake herria. Tautologia sinple bat da baina, paradoxikoki, egia bihurtzen zaila. *Herria*, hori zernahi dela ere, nahi beste eta nahieran erabiltzen da gurean; askotan, sinekdoke baten bidez: zatia osoaren partez.

Komertzio txiki askorentzat azken labankada izan da krisi hau. Eskerrak gure hirian kanpaina bat egin duten komertzio txikiaren alde, eta ongi etorri, dena izango baita beharrezkoa. Halere, abiapuntua bera nahiko bitxia iruditu zait: eskualdeko atletismo taldeak dinamizatu du kanpaina, udalaren babesarekin.

Anbiguotasun itxuraz neurtu bat konstantea izan da kanpaina: ez dut lortu deszifratzea bertako komertzioaz ari diren, edo bertako komertzio txikiak. Eta, oker ez banago, amildegi bat dago bi planteamenduen artean, komertzio handiak itotzen baitu batez ere komertzio txikia, sareko erosketak alde batera utzita. Duela lau urte irekitako aldirietako Mercadonan erostea kabitzen al da “bertan kontsumitu” aldarrian? Kanpainarako sortu duten #NikIrunenErostenDut traolak ez digu zalantza argitzen. Pista handia ematen digu, ordea, eskualdeko atletismo taldearen izen osoa irakurtzeki; badira urte batzuk bertako supermerkatu kate handi bati zor diola izenaren lehenengo erdia.

Baina tira, gauzak dauden bezala mizikinegi ere ez gara jarriko. Harira: atletismo taldeak herriko pertsonaia ezagun batzuk jarri ditu kamera aurrean, haiek ere Irunen erosten dutela esanaraziz. Halakoetan, talde sustatzailearen helburua izan ohi da ahalik eta jende ezagunena, erakargarriena, eta aldi berean, ahal bada, pluralena biltzea.

Tradizionalki *herria* inbokatzeke joera handiagoa izan duten sektoreetatik iritsi zaizkigu halako bideoak, halakoe-tara gaude ohituago. Atentzioa eman didana da, kasu honetan, “herria ordezkatzeko” nor aukeratu duten. Eta ez pentsa Amaia Montero, Jon Sistiaga eta Lourdes Maldonado aukeratu dituztenik, ez imajinatu karikatura grotesko bat; gehienak kirolariak dira —dela afinitate kontuengatik, dela beste inertzia orokortu batzuegatik—. Eta kontuz, kirolari handiak ditugu hirian. Baina erreferenteak ez ditut gertuko sentitu, nahiz jabetzen naizen herritarrentzat oso ezagunak direla. Parte hartu bainuen antzeko egitasmo batean duela gutxi, beste helburu batzuekin, eta mosaikoko teselak oso desberdinak izan ziren.

Horrelako bideoek gogorarazten didate ez garela underground eta alternatiboak, hori pentsatzeak zirrara sor diezagukeen arren; bazterrekoak gara, marjinalak. ●

Hutsunea



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
 IRAKASLEA

Hil ala biziko zeregin baten aurrean, geure gorputz eta buruak lanari era berezian ekiten diote. Dena emanda jarduten dugun bitartean, estresak edota adrenalinak aurrera erroten gaitu, mantendu eginkizun horretan buru belarri. Nahiz eta batzuetan pot egin, edo animo gorabeherak izan, behar-rean segitzen dugu, besterik egin ezin delakoan.

Esfortzu handiaren ondorioak sinestezinak izaten dira, baina. Eginbeharra amaitutakoan, haren falta igartzen da, eta noraezean bezala geratzen gara, zer egin eta gure lekua non dagoen jakin ezinda.

Halako zeozer gertatu zaigu batzuoitxialdiaren ostean. Konfinamenduaren helburua argia zen, zehaztopen nahasiak eman bazizkiguten ere. Ahalegin handia eginda, indarrak ere ia agortu zaizkigu bidean, hustuta sentitzen gara barrutik, kantsatuta. Normalitate berrira ailegatatukoan, ostera, ez dago ezer espazio horretan, ez dugu xede zehatzik, hutsik dago, zulo beltz erraldoi bat besterik ez da, energia xurgatzen duena, ezerezean laga gaituena.

Itxialdiak kaleak hustu zituen lez, deskonfinamenduak barruan hutsune erraldoi bat zabaldu digu, gaitza betetzeko. ●

Zaunka



JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

—Nire atek hotsa dau zoli,
txakurrak bere salatu.

—Nire txakurra isilduteko,
eper bizia biozu.

—Eper bizia koyiduteko,
mutil mantsoa zagoz zu.

Azkuek jaso zituen ahapaldi hauek *Gautxu baten* abestian. Euskaltzale handiak bildutako kantak argitaratzean maiz *zuzendu* egiten zituen. Hitzak narasak iruditzen zitzaizkiolako edo moralaren ikuspegitik onartezinak. Hau ukitu gabe utzi zuen. Ez omen zen konturatu *txakurra* eta *eperra* zeren metafora ziren. Abade inuzentea!

Zakur hitzak askorako ematen du. Pertsona zital eta ziztrineki esan ohi diegu, bereziki poliziei. Hil berria den *Billy el Niño* komisarioari esaterako. Euskal Herrian *Txakurrak kanpora* leloa zabaldu zen ertzainengatik. Helburua ere lortu zuen, ertzain askok, mehatxupear, Santander aldera hartu baitzuten, Iparragirrek bezala. *Txakur-eztula*. *Zakurkerria*, *Zakur dantza*... Zakurrek beraiek ere balio asko dituzte: lagun, gidari, zelatari, bilatzaile...

Haurretan, tarteka, ikusten genuen inor zakua lepoan Paseo Berrira joaten eta zakua itsasora botatzen. Denok bage-

Ez dago beste biderik.
Hirietan zakurrak
mugatzea edo hiriak
zakurrentzat egokitzea.
Lau hankakoentzat
alegia. Zaunk, zaunk!

nekien zer zegoen poltsan: txakurkume edo katakume jaioberri mordoxka. Hori xe baitzen araua: etxerako bat edo bi, komeni zirenak gorde eta besteak itsasora. Ekologikoa.

Osasun krisi honetan, pertsonak zerratuta, baina *Txakurrak kanpora* atera dira. Argi geratu da errealitatea: egun gure hirietan zakur gehiago daude umeak baino. Gehiegi. Batzuk iritziko diote pertsonak daudela sobran. "Zenbat eta gehiago ezagutu pertsonak, hainbat maiteago dut gure zakurra", Diogenesen esaldia berenganatuta. Ez da hori, baina,

arazoa. Zakurrak, katuak, krokodiloak... edo sugandilak *maitatu ez, errespetatu* egin behar dira. Pertsonak bezalaxe. Eta zakurrentzat ez da ekosistema egokia hiri ingurua. Askotan pertsonentzat ere ez, baina geuk eraikia da.

Asmatzen dugu zakurrek edo tankera guztietako piztiek zer sentitzen duten, zer nahi duten eta horixe ematen diegu edo eginarazten. Nondik nora zakurrak arropa jantzita, ia egun osoan etxean utzita, gure pausoan lotuta ibilarazi paseo eskasetan? Krudelkeria iruditzen zait. Zirkuarena bezain handia.

Arazo honi aurre egin behar zaio. Baina, beste askotan bezala, ez zaio egingo. Inozokeria orokortuaren ondorioz, ez delako errentagarri botoak lortzeko. Eta, entzun dugu bestelakoetan ere, ekonomia-errentzako kaltegarria litzatekeelako. Zenbat denda eta fabrika itxi beharko liriteke? Zenbat lanpostu suntsituko? Borroeroarena desagertu zen eta ez da kexarik.

Ez dago beste biderik. Hirietan zakurrak mugatzea edo hiriak zakurrentzat egokitzea. Lau hankakoentzat alegia. Zaunk, zaunk! ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

MANU ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

ARGIA

LIBURUA
SALGAI!
14€

AZOKA.ARGIA.EUS
943 37 15 45

EUSKADI ZAIN DUZU

EGONGO GARA BERRIZ



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

GENEROA ETA SEXUALITATEA DEKOLONIZATU, LAKOTA HERRIA ALTXATU

AEBetako Hego Dakotako Pine Ridge erreserbako Lakota Sioux Tribe tribu-gobernuak bi lege historiko onartu zituen 2019ko legealdian. Sexu berekoen arteko ezkontza eta LGTBIQ pertsonen aurkako erasoak gorroto delituen barruan sartzea. Lorpen hauen atzean dauden ekintzaileak generoaren eta sexualitatearen dekolonizazioaren bidean egiten ari diren urratsak, baina, beren eragin-esparruaz harago doaz; Lakota herriaren susperraldiaren abangoardia dira.

 **IGONE MARIEZKURRENA**  **IRANTZU PASTOR**

Canupa Mani Wi (Pipa Eskuan Duela Dabilena) eta Te Kee Kela Wi (Denek Maitatua) Monique eta Felipa bezala ageri dira erroldan, erregistro ofizialetan ez dituztelako izen indigenak onartzen. 2015az geroztik emazteak dira AEBetako Gorte Gorenaren begietan eta, aurki, jaiotze eta hazi diren natibo erreserban ezkonduko dira. Lakotak dira, Sioux gisa ezagunagoak, Ipar Amerikako lautadetako jatorrizko herri jendetsuenetako bateko kideak. Bikoteak Rapid City hiriko kanpo-auzo batean du etxea orain, Hego Dakota mendebaldean, Pine Ridge erreserbatik 180 bat kilometro-ra. “Duela hamaika urte alde egin behar izan genuen handik, mehatxatuta; baina

denbora honetan guztian gure erreserba barruan egin dugu borroka”, dio Canupa Mani Wi-k. Zinez, iragan uztailean eta irailean, Pine Ridge-ko gobernuak onartutako eta datozen hilabeteetan beste hiru erreserbatan eztabaidatuko dituzten bi legeek aurpegiak badute, bi emakume nekaezin hauenak dira. *Marriage Equality 19-24* (Berdinasuna Ezkontzan) eta *Hate Crimes 19-37* (Gorroto Krimenak) haien kemenaren fruitua dira.

Egun, 573 jatorrizko herrik dute AEBetako Gobernu Federalaren aitortza, eta tribu bakoitzak era pseudosubiranoan gobernatzen du dagokion lur-eremua (orotara, AEBetako azalera osoaren %2,3), beti ere Indioen Aferetarako Bulegoak gainbegiratuta. XIX. mende

amaieran, aurreneko talka odoltsuaren ostean, genozidioaren bigarren fasea hasi zen, mantsoagoa. Beste aterabiderik gabe, garaiko tribu-buruek bake-itunak sinatu zituzten kolono zuriekin, eta Gobernu Federalak natiboentzako erreserbetara bidali zituzten Ipar Amerikako jatorrizko herritarrak. Gerora aldiro-aldiro berrikusi dituzten arren, tribu-gobernu bakoitzari dagozkion eskumenak ere orduantxe ezarri zituzten; lakotentzako Pine Ridge erreserbaren kasuan, zehazki, 1889an. Gaur egun, 9.000 metro koadroko azalera du, eta 20.000 biztanleko populazioa.

Sexu bereko pertsonen arteko ezkontza legezkoa da 2015az geroztik AEBetako 50 estatuetan, baina soilik 35 tribuk



CANUPA MANI WI (atzean)
ETA TE KEE KELA WI
Pine Ridge erreserbako
haien etxe aurrean.



aintzat hartu dute ordutik. Oglala Sioux Tribe da 36.a, eta Hego Dakotako lehena. LGTBIQ kolektiboaren aurkako delituen alorrean lortutakoa are historikoagoa da, ez baitu aurrekaririk tribuen beste jurisdikzioen artean: lehendabiziko aldiz, 'Gorrotu Krimenak' kategoriak biktimaren sexu identitate edota joeragatik egindako erasoak barnebilduko ditu.

"Fede katoliko itxia duten lakotak izan dira oztopo nagusia eta erasotzaile krudelenak", hasi da Canupa Mani Wi, "baina ezin ditugu epaitu; zigortzaile bilakatu aurretik biktima izan zirelako haiek ere", gehitu du azkar Te Kee Kela

Wi-k. Bikoteak dio diskurtso homofobia darabilten lakota gehienak ume zirelarik Indian Boarding School delako indigenentzako barnetegietatik pasatakoak direla, eta kultura-asi milazio esperientzia traumatiko haren ondorio direla komunitate askotan zabaldu diren ideiak eta gorrotoa. Izan ere, 1879tik 1973ra bitarte, Gobernu Federalak Ipar

Amerikako milaka ume indigena etxetik indarrez atera eta 5 eta 18 urte bitarteko barnetegietan sarrarazi zituen. "Haurtzaroa eta nerabezaroa ez ezik, identitatea bera lapurtu zieten -hasi da azaltzen Te Kee Kela Wi-; ilea moztu zieten, baita lakota eta beste edozein adierazpide natibo debekatu ere. Basatiak, alferrak eta zoroak zirela sinestarazi zieten; eta, guztiaren gainera, kristau moralak inposatu zieten lakoton sinemenen eta balio-sistemaren ordeztu". Oinordetza hori belaunaldiz belaunaldi transmititu dela gehitu du Canupa Mani Wi-k, eta zeharo baldintzatu duela euren herrikideek LGTBIQ pertsonetara duten pertzepzioa: "Kolonialismoak herri indigenak nola pobretu eta kriminalizatu dituen ulertzea ezinbesteko premisa da pairatzen ditugun gaitzak akabatzeko, homofobia barne".

1970eko hamarkadan horrelako azken eskolak atek itxi zituenetik, makina bat erakundek eta unibertsitatek deskribatu dute jendarte natiboak sistematikoki suntsitzeko diseinatutako Indian Boarding School haiek eragindako sarraski transgenerazionala. Esate baterako, Amerikako Psikiatria Elkarteak darabilten datuen arabera, Ipar Amerikako jatorrizko herritarrek pobrezian bizitzeko edota indarkeria nozitzeko duten probabilitatea AEBetako batez bestekoa baino 2,5 aldiz altuagoa da. Herritar natiboaren %42k alkoholismo arazoak izan ditu azken hamabi hilabeteetan, eta %18,4 drogen menpe bizi da. Arazo psikologiko larrien eragina bi aldiz handiagoa da natiboaren artean.

Gutxi ikertu dute, ordea, trauma historikoaren eta homofobiaren arteko harreman kausala, nahiz eta zifrak bel-durgarriak diren. Pine Ridge erreserban, adibidez, beren buruaz beste egiten saiatzen diren nerabeen kopurua AEBetako batez bestekoa baino %150

altuagoa da. Eta, horien artean, beren burua LGTBIQ kolektiboko kideztatu

identifikatzen duten gaztetxoaren kopuruak hirukoiztu egiten du besteena, Oglala Sioux Tribe eta Gai-xotasunak Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Zentroaren datuen arabera. "Gure distri-tuan, aurreko lau hilabe-teetan 30 urtetik beherako zazpi gaztek egin dute beren

“Kolonialismoak herri indigenak nola pobretu eta kriminalizatu dituen ulertzea ezinbesteko premisa da pairatzen ditugun gaitzak akabatzeko, homofobia barne”

CANUPA MANI WI

buruaz beste; horietatik bost homosexualak ziren”, dio Te Kee Kela Wi-k.

“Guk 2006an ezagutu genuen elkar, eta gure harremana ez ezkutatzea erabaki genuen une berean jaso genuen gure familien gaitzespena. Auzokoen isekak ere heldu ziren, mehatxu anonimoak, guri buruzko gezur eta akusazio faltsuak, bazterkeria gasolindegian, denda edota jatetxeetan... komunitateak bizkarra eman zigun, erabat”.

Canupa Mani Wi polizia izan zen bederatzi urtez eta, hortaz, euren azalean sufritutakoaz gain, Tribu Poliziako kide gisa beste hainbeste ankerkeriaren lekuko izan zela dio: “Bereziki gogoan dut bortxaketa bat salatzeraz etorri zen neska baten kasua. Erreserban gauza jakina zen lesbiana zela. Badakizu zer esan zidan komisaldegiko buruak? Neskato hark merezia zuela egin ziotena, behin eta berriz bortxatu beharko luketela bere ‘desbideraketa’ sendatu arte. Gau hartan ez zitzaidan guardia tokatzen, baina neskatoa etxera itzuli zen arte geratu nintzen”. Gizon hura bera izan zen 2007an Canupa Mani Wi komisaldegia uztera behartu zuena. “Tira, gure historiaren berri jakin zuenean, argi eta garbi esan zidan aukeratu beharra nuela: lanpostua ala bikotekidea”. Bikotea 2009an mugitu zen erreserbako mugez gaindi, Rapid City hirira, euren bizitza arriskuan ikusi zutelako. “Baina erabaki horrekin ez genuen gure herriaz arnegatu”, argitu nahi izan du Te Kee Kela Wi-k. “Gure amonek irakatsi ziguten elkarrenganako errespetua dela lakoton oinarri-oinarrizko balioa, denok bat garelako eta hurkoari gertatzen zaionak eragin zuzena duelako beste guztiongan. Bere sustraiei eusten dien benetako lakota jendarte osasuntsu batean halako bidegabekeriek ez dute lekurik. Horregatik, borroka honek, LGTBIQ pertsonon esku-bideak defendatzearekin ez ezik, lakota identitatearen berreskurapenarekin du zerikusia”.

Bizitokia aldatu zutelarik, Uniting Resiliencie elkarteak sortu zuten. Hamar urtez aritu dira Pine Ridge erreserbako bederatzi distrietuetan barrena kontzientzia eta aldarria zabaltzen, manifestazioak, sinadura-bilketak, performanceak, batzarrak, harrotasun-desfileak antolatzen eta, beti, aliantzak bilatzen. Hizkuntzaren lerrotik, artearen bidez, ahozko kulturaren berreskurapenetik eta beste hainbat erresilientzia ildotatik jatorrizko herri honen susperraldia eragiten ari diren adiskideak



izan dituzte bidaide. Eta, nolabait, beste horien guztien ahaleginaren katalizatzaile izan dira, dagokien meritua onartzea kosta egiten zaien arren.

“AEBetako natibo erreserbarik deprimituenean –%90eko langabezia-tasa, %80ko alkoholismo-tasa, 51 urteko bizi-itxaropena– jendea altxatu bada, dena dugu irabazteko!”. Canupa Mani Wi-k argi du hau hasiera besterik ez dela eta dagoeneko lanean ari dira Hego Dakotako beste zazpi lakota tribu-gobernuek bi lege hauek besarka ditzaten: “Otsailean Rosebud, Yankton eta Sisseton erreserbetako Lege eta Ordena Ko-

miteekin bilera egin eta legeen mamia aurkeztu genien. Datozen hilabeteetan euren biltzarretan eztabaidatu eta bozkatzeko konpromisoa hartu zuten, baina martxoan COVID-19 pandemia iritsi zen, eta orduz geroztik dena geldirik dago”. Organo legegileek martxa berrartu arte itxaron beharko dute.

TWO-SPIRITED: BI ESPIRITUDUN PERTSONAK

“Two-spirited aterki-termino zabala da. Natibo ez diren LGTBIQ pertsonengandik bereiztu eta jatorrizko herrioren ezaugarriak balioan jartzeko erabil-

CARLA DOUGLAS: "la bi mendeko zapalkuntzak lotsa eta errua sakon iltzatu ditu gugan, eta gehiengoak oraindik beldurra dio aske maitatzeari"



tzen dugu, gure izaera markatzeko". Carla Douglas Kanadan jaio zen, erdi syilx-a erdi shuswap-a da, baina 30 urte daramatza Hego Dakotan. Beste askoren artean, inplikazio sendoa du Black Hills Center for Equality eta Transcendence erakundeekin. "Nire biografiak baldintzatuta-edo, batez ere pertsona transexual eta transgeneroak babesten aritzen naiz, baina bi espirititudunon komunitatea izugarri anitza da: Ipar Amerikako zenbait gizarte indigenak onartzen dituen hirugarren edota laugarren generoetako pertsonak barne hartzen ditu, adibidez. Baita generoaren araberrako edozein sailkatzea arbuiazen dutenak ere. Pertsona homosexualak, bisexualak, intersexualak...".

Alaskatik Texaseraino, herri natibo askoren ahozko tradizioak gorde ditu *two-spirited* edo bi espirititudun jendearen inguruko aipamenak. Sakratuak ziren antza, edo oso baliotsuak bederen, eta hain justu gizarte-rol bat baino gehiago beren gain hartzeko zuten gaitasunari zor zioten euren herrikideen miresmena. Umezurtzak hezteaz arduratzen ziren kasu batzuetan, alarguntzan makulu izan zitezkeen, gerglari zenbaitetan, sendatzaile beste batzuetan. "Gure arbasoen garaiko



two-spirited figura baino askoz konplexuagoa da gaur egun termino hori bera erabilia izendatzen dugun errealitate multzoa", dio Douglasek, "baina antzinako kontzeptu bat modernizatzeak gure iraganarekin lotzen gaitu eta, aldi berean, jarraikortasuna adierazten du; ezereztu nahi gaituzten arren, bizirik segituko dugulako".

Esparru legalean lortutakoa txalotu du Carla Douglasek, bera ere borrokan aritu da: "Konbertsio Terapia legezkoa da oraindik Hego Dakotan -AEBetako hemeretzi estatuk soilik debekatu dute, erronka berri asko ditugu begi aurrean", baina lehentasuna beste bat dela uste du: "Zigor

penala baino eragingarriagoa da zigor soziala, disuasio-ahalmen handiagoa du. Jendartearen pentsaera aldatu behar dugu, inpunitatea eten, eta duela 150 urte moral katolikoa inposatu aurreko elkar errespetuzko harremanetara itzuli". Eraso homofobo eta transfobo askoren atzean biktimen senitartekoak daudela dio, eta neurri handi batean horregatik ez dituz-



"Jendartearen pentsaera aldatu behar dugu, inpunitatea eten, eta duela 150 urte moral katolikoa inposatu aurreko elkar errespetuzko harremanetara itzuli"

CARLA DOUGLAS



tela salatzen. Eta Justiziak *two-spirited* baten alde egingo duenaz inolako itxaropenik ez dutelako. Erasoak fisikoak eta esplizituak ez direnean ere, familiaren mespretxuak, bakartzeak eta baztertzak, inguru sozialaren galera horrek, bi espiritudun pertsonen zaugarritasuna areagotzen du. “Rapid Cityn daukagun harrera-etxean artatzen ditugun lagun asko kalean bizi izan dira denbora luzez, gugana jotzeko adorea bildu duten arte. Maiz, gurasoek edo aiton-amonek arbuatuta utzi behar izaten dute jaioterria gazterik, eta erreserbatik alde egin, gehienetan hiriren batera”, azaldu du. Estigmatizatuta eta lan aukerarik gabe, hirietako kaleak bereziki arriskutsuak dira natiboentzat. “Jazarpenak alkoholismora, droga menpekotasunera eta delinkuentziara daramatza sarri. Prostituziora jotzen dute sos batzuk irabazteko, eta beste batzuk salerosketasareen edota organo-trafikatzailleen eskuetan erortzen dira. Askok betiko desagertzen dira, eta ez dugu inoiz jakingo zer gertatu zaien. Kasuak ez daude inon erregistratuta, ez daukagu datu ofizialik. Ez da zaila ulertzea zergatik gutako gehien-gehienek ez duten pausoa ematen, ezta?”. Eta, gainera, kanpoko mehatxuei aurre egin baino lehen, norberaren baitako mugak ere eraitsi behar direla

azpimarratu du Douglasek: “Ia bi mendeko zapalkuntzak lotsa eta errua sakon iltzatu ditu gudan, eta gehiengoak oraindik beldurra dio aske maitatzeari, aske agertzeari edota *‘Two-spirited friendly’* gisa publikoki azaltzeari. Oraindik zaila da gure kideek euren burua onartzea, eta are zailagoa deitzen ditugun mobilizazioetara jendea erakartzea... baina bagabiltza”.

Carla Douglas espetxean jaio zen, ama alkoholikoa preso zelarik. 4 urte zituenean bortxatu zuten lehenengoz; 16 eta 14 urteko bi auzokide izan ziren. Handik gutxira, bere buruaz beste egiten saiatu zen aurreneko aldiz. 6 urte zituela British Columbiako Boarding School batean sartu zuten eta klasekideen bullying “gaiztoa” nozitu zuen luzaroan. Abadeek eta mojek “higuingarria” zela esaten zioten, nahiz eta horietako zenbaitek ezkutuaren bortxatzen zuten. Jaioterrira itzulita, 16 urteren bueltan, amak diru-iturri

bezala erabili zuen Carlaren gorputza, bortxatzaileak etxera, bere gelara, ekarri. Kanadatik ihes egin eta AEBetako hainbat hiritan ibili zen, kalean, prostituzioan, harik eta zulo ilun hartatik ateratzeko modua aurkitu zuen arte. Rapid Cityko unibertsitatean Gizarte Langintza gradua osatu eta kontsulta, aholkularitza eta bitartekaritzarako gune bat



“Gure amonek irakatsi ziguten elkarrenganako errespetua dela lakoton oinarri-oinarrizko balioa. Horregatik, borroka honek, LGTBIQ pertsonon eskubideak defendatzearekin ez ezik, lakota identitatearen berreskurapenarekin du zerikusia”

TE KEE KELA WI

iarri zuen martxan *two-spirited* komunitatearen zerbitzura. Azken 30 urteotan bere bikotekidea izan den emakumea iaz hil zen, eta Douglasek oso gogoan du transsexuala izateagatik ez ezik emakume bat maitatzeagatik jasan zuten diskriminazioa. “Obra dramatiko bat, tragedia bat!, idazteko moduko bizitza izan dut! –dio algaraka–. Oraindik baditut krisialdiak, baina egiten dudana da sendagairik onena. Gure ondorengoez askatasunean erabakiko dutelako nor izan nahi duten eta nola bizi nahi duten”. ●

KIKE AMONARRIZ, SOZIOLINGUISTA

“Krisitik irteteko, euskalgintzak ere bat egin behar du beste sektore askorekin”

Ohi duenez, hinki-hankarik gabe jardun du Kike Amonarrizek orain hurrena kaleratu duen liburu mamiz betean: *Euskararen bidegurutzetik* (Elkar, 2019). Dioenez, ziklo aldaketa bizi dugu, eta hurrengo urteak giltzarri izan daitezke euskara komunitatearen etorkizunarentzat. Hargatik, “bidegurutzean gaude” oharrazi digu.

 MIEL A. ELUSTONDO  DANI BLANCO

Horra Kike Amonarrizen liburua, azaletik bertatik asmo garbi batez jantzia. Ekaitz Zilarmendi argazki-lariaren irudian, jendea, kalean, hodeiertza beste mugarik gabe, nola behar baitu euskarak. 350 orrialde mamiz beteak hamabi kapitulutan banatuak, irakurleari keinuz eta umorez zipriztinduak.

Bidegurutzean dago euskara, zuk esaten duzunez...

Baina ez diot nik bakarrik, baita beste askok ere, eta zenbait arrazoi ere baditugu hori esateko. Batetik, azken hamarkada hauetan mundu osoko hizkuntzak astindu dituzten fenomeno globalak ditugu. Bestetik, Euskal Herrian gertatu diren aldaketa sozio-politikoak. Eta, azkenik, euskararen hizkuntza komunitate barruan gertatu diren egiturazko aldaketak. Hasteko, mundu osoko hizkuntzei eragiten dieten fenomenoak azaltzeko orduan, 'globalizazioa' aipatuko nuke. Ditzosozko globalizazioa esango du batek baino gehiagok, baina egia da, zenbait fenomeno modu orokorrean gertatzen ari dira munduan, eta planetako hizkuntza guztiei dagozkie. Esate baterako, ingelesaren mundualizazioa, migrazioak, teknologia berriak eta turismoa. Baina horiek ez dira, bakarrik, euskarari eragiten dioten

faktoreak, mundu osoko hizkuntza komunitateei baizik, eta denok batera egin beharko diogu aurre globalizazio horri, haren arriskuei, eta aukerei.

Euskal Herrian gertatu diren aldaketa sozio-politikoak...

ETA desagertu da, eragile politiko berriak agertu dira, Euskal Elkargoa sortu dute Ipar Euskal Herrian, Nafarroan eskuina gobernutik kanpo utzi dute... Aldaketa sozio-politikoak dira, baina ondorio sozio-linguistikoak dakartzate, eta, azpimarragarriena, euskalgintzaren, herri erakundearen eta alderdi politikoaren arteko harremanek normaltzera egin dutela, nabarmen hobetu direla, alegia. 20. Korrirari Irun eta Hendaia arteko Santiago zubiko argazkia horrexen adierazgarri da, edo Euskaraldiaren aurkezpen eguneko argazkia, Bilbokoa. Adibideak gehiago ere badira, jakina. Argazki horiek ezinezkoak ziratekeen duela urte batzuk. Aldaketa politikoak ez ezik, sakoneko aldaketa sozialak ere bizitzen ari gara: gazte euskaldunen migrazioa, mugimendu eta pentsamendu feministaren zabalkundea, hirigintzak eta biztanleriaren mugikortasunak arnaguneetan eragindako aldaketak, jaitsiera demografikoa, zaintza erduetako joera berriak...

Aldaketa horiek ere gure hizkuntza komunitatea aldaraziko dutela zalantzarik ez izan, aldatzen ari ez badira dagoeneko! Koronabirusaren krisia ere ari da eragin soziolinguistikoa izaten. Hainbat erakunde eta eragile sozialek atzera egin dute beren hizkuntza-praktiketan, eta euskararekiko urruntzea gertatu da familia eta ingurune erdaldunetako haur eta gazteen artean. Baina eragin positiborik ere izan da, eta horietako bat dugu, adibidez, euskarazko hainbat hedabidek inoizko kontsumorik handiena izan dutela. Nire ustez, hizkuntzen arteko harremanak eta euskararen erabilera bera ere aldatuko dira honen guztiaren ondorioz.

Eta zein dira hizkuntza komunitatean gertatutako aldaketak?

Duela bost hamarkada hasitako bidearen amaierara iristen ari gara, fase berri bat hasten. Horixe erakusten digute euskarazko erduetako matrikulazioen ehunekoak eta euskararen ezagutzarenak, adibidez. 80ko hamarkadaren hasieran, %20 koak ziren horien ehunekoak. 2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera, berriz, EAE eta Nafarroako iparraldean, 25 urtez azpiko euskarazko ezagutza %80koa da. Eta ehuneko handiagoa da euskarazko erduetan matrikulatuta

dauden irakaskuntza arautuko ikasleena. Nafarroako gainerako zonaldeetan eta Ipar Euskal Herrian, ehunekoak baxuagoak dira, baina goranzko joera erakusten dute. Nolanahi ere, hainbat ikerketak erakutsi digute DBHtik ateratzen diren ikasle askoren hizkuntza-maila ez dela nahikotasun-mailara iristen. Ezagutzaren unibertsalizazioan eta hobekuntzan jarraitu beharko dugu.

Joaquim Dolzek ARGIAN (2020-30-15) esana: "Gizartea lasaitu egin da euskararekin, eta berraktibatu beharra dago".

Zuzen ari zen. 1989tik 1997ra, euskararen kaleko erabileraren datuek hobekuntza erakusten zuten. 2011 eta 2016ko azken bi neurketek, aldiz, beheranzko joera. Alarma gorri guztiak piztarazi zituzten datu horiek. Gazteen Euskal Behatokiak EAEko 15-29 urte bitarteko gazteen lagun giroko erabilerari buruzko datuen arabera, berriz, 2004tik 2016ra, %48tik %38ra jaitsi da erabilera. *Impasse* egoera berretsi besterik ez dute egiten datuek.

Zein dira *impasse* horren arrazoiak?

Gizartearen desaktibazioa hizkuntzari dagokionean, hizkuntza politiken ahulezia, migrazio berrien eragina, globalizazioa, turismoa, lan merkatuak zabaltea... Faktore guztiok eragingo zuten, seguruen, eta horregatik da ezinbestekoa, erabilera suspertzekotan, herritarrak, erakundeak eta era guztietako eragile sozialak aktibatzea, eta hizkuntza politikan jauzi kualitatiboa ematea. Erabileran nabarmen aurreratzen dugu, edo ezagutzen eta jarreretan irabazi duguna galtzeko arrisku bizia izango dugu.

Erabilerari eragiteko azkena asmatu dena, Euskaraldia.

Euskaraldiak hainbat ondorio ekarri ditu. Hasteko, formatu berri eta indartsu bat sortu du. Euskal Herriko geografia osora iritsi da, jende askorengana: lehen aldian, orain dela bi urte, 225.000 lagunek eman zuten izena, eta hori sekulakoa da, 16 urtetik gora euskaraz dakigunok, Euskal Herri osoan, 750.000 garelako kontuan izanik. Euskaraldian izena emandakoak 225.000 izatea, ikaragarria da. Mugimendua ekarri du, herrietan taldeak sortzea, 400 herri batzorde baino gehiago! Euskaraldiak, bestalde, emaitzak izan ditu, zenbait jendek hizkuntza ohiturak aldatu ditu; aldaketa horietako batzuk egonkortu egin dira, eta beste batzuk, aldiz, galdu dira. Baina aldaketa egin da, behintzat!



Aldaketa egonkortzea da gako orain?

Bai, baina horretarako, Euskaraldiak eragiten duen indar soziala egonkortu behar da. Dena dela, egindakoa hor dago. Hainbat balorazio egin dira. Batetik, jende berria hurbildu da, eta hori asko baloratu da. Bestetik, ilusioa sortu du, jendeak parte hartu du, diskurtso berri positibo bat zabaldu da –ikaragarri baloratu den gauza–, eta, era berean, oso diskurtso irekia, jendea eroso sentitu baita diskurtso horren barruan. Hori guztia balio bat da! Emaitzei dagokienez, berriz, hizkuntza ohituretan aldaketa gertatu da, kontuan izanik Euskaraldia hamaika eguneko asmoa izan zela. Euskaraldiari esker, eus-

kara berriro agenda sozio-politiko-komunikatiboan azal dadin lortu dugu, jakinik gure hizkuntzak pandemia egoera honek agenda horretatik desagerrarazteko arriskua duela. Baina alderantziz gertatu da, egoera honek euskararen eragileei beren eskariak egiteko, kezkak plazaratzeko eta proposamenak aurkezteko bidea ireki baitie.

Aurten, berriz izango dugu Euskaraldia.

Nik uste antolaketan gabiltzan alde guztiak bat gatozela, hala gizarte eragileak nola erakundeak: Euskaraldia egin behar dugu, euskara agenda sozio-politiko-ko-

munikatiboan berriro ager dadin, indarra gal ez dezan, eta ozen adierazteko, komunitatearen berreraikitze prozesu honetan, euskarak ere presente egon behar duela jorratu behar diren sektore eta balioen artean. Etxe barrura begira, uste dut, oztopo guztiak gorabehera, aukera eder bat zabaltzen zaigula, gizarte mailan, eta sortuko den krisitik irteteko, euskalgintzak ere bat egin behar duela beste sektore askorekin.

Zer esan nahi duzu?

Krisiak dendari txikien biziraupena kolokan jarriko du, nola jarriko baitu era berean kolokan kulturagintzako hainbat alderdirena. Hortaz, guk ekarpena egin genezakeela uste dut, komunitateari esanez: "Guk, euskararen alde egiten dugun neurrian, dendari txikien alde egin behar dugu, geure sortzaileen alde, osasungintza publikoaren alde". Nik uste euskarak ere bat egin behar duela aldarrikapen horiekin. Eta uste dut konfuentzia baterako bidea ere badagoela, zeren krisi honean zerbitzu publikoak zein garrantzitsu izan diren ikusi dugu, zein garrantzitsu elkartasuna, zein garrantzitsu komunitate zentzuaz jabetzea. Erantzun kolektibo behar zuen koronabirusak eragin duen krisiak, eta aurrera begira ere aipatu ditudan balio horietan oinarritu beharko dugu. Eta iruditzen zait Euskaraldia aukera on bat izan daitekeela. Krisi honek erakutsi digu zein garrantzitsuak diren hartzen diren erabaki politikoak, gizarte mailako sareok dugun erantzukizuna, eta norbanakook egin dezakeguna. Eta euskararen normalizazioak ere hiru horiek behar ditu.

Topagunearen hausnarketa talde Topalabeak 'Berrindartu eta jauzi' txostena kaleratu berri duzue. Orain bost urte, berriz, 'Berrikasi eta



berrikusi' zenuten abiapuntua.

Gurekiko, aurreko fasean, hizkuntzaren normalizazio prozesu modernoaren lehen fasean, kapital handiena hezkuntzan jarri da. Hala behar zuen! Horrek eman duena eman du. Asko egin da, baina erronka berriak sortu dira: etorri berrien egoera, adibidez, ikuskizun baita hezkuntzak nola erantzun ote dion.

Edo hor dugu ikasleen euskara maila ez behar bezalakoa, oraindik... Erronka berriak hainbat ditu euskarak, eta hurrengo fasean lehentasunak zein diren erabaki behar dugu. Kezka horien inguruan gogoetaztera dator 'Berrindartu eta jauzi' dokumentua: eskola ezinbestekoa da, baina eskolak bakarrik ezin du. Aspaldi ari gara hori esaten.

Urrats berriak egin behar ditugu, eta urratsak ez ezik, jauzia eman behar dugu, bi esparrutan batik bat: bata, eremu ez-formala da; hau da, eskolatik kanpo, haur eta gazteek duten mundua, dela eskolorduz kanpoko jarduerak, ikus-entzunezkoen kontsumoa –eta krisi honetan garbi ikusi dugu horrek zer garrantzi

duen–, eta lan mundua, izan ere, zertarako ari dira euskaraz ikasten, gero ezingo badute euskaraz ere lan egin. Txostenean diogunez, aipatu bi esparru horietan jauzia emateko baldintzak ditugu.

Etorri da koronabirusa eta gaztelaniazko mezuz bete digu etxea, euskara hitzunon sarea, erdaldundu digu geure sarea ere...

Ikus-entzunezkoetan, eta maila informalean dauzkagun gabeziak oso agerian gelditu dira koronabirusaren krisian. Egoera normal batean ez da gertatzen, baina egoera pixka bat bere onetik irriten denean, gaztelania nagusi! Jokaera horiek moztu egin behar dira. Erakunde askotan ere, euskarako batzordeak edo zerbitzuetakoak horixe dira, "Euskarakoak". Erdigunerako bidean urratsak ematen ari ginen, baina birusak euskara berriro ere "periferizatu" egin duela iruditzen zait. Horretan, Euskaraldia lagungarri da, eragiten laguntzen du. Koronabirusaren krisia aipatu duzunez, kaleratu berri dugun gogoetak, funtsean, berdin-berdin balio du, baina aplikazioari dagokionez, krisiak egokitzapenak egin beharra ekarriko du, bai epeei eta bai baliabideei dagokienean. ●

Erdigunerako bidean urratsak ematen ari ginen, baina birusak euskara berriro ere 'periferizatu' egin du"

BABESLETZA:

HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLI, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, arintasunaren eta ikuskeratasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa iluzina da begientzat"
Assure de Saint-Eugèry

orkli



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Azterketik gabe ebaluatu daitekeela irakatsi du koronabirusak

Koronabirusak lortu du hezkuntzan aldatzeko zailenetakoa den elementua hankaz gora jartzea: ebaluazioa. Azterketetan oinarritzen dute ebaluazioa ikastetxe ia guztiek, eta beraz, azterketen arabera antolatzen da ikaskuntza prozesu osoa. Oraingoan, ikastetxe horietako askok, egoerak behartuta, ia azterketarik egin gabe burutu dute ikasturte bukaera. Errenteriako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (12-16 adin tartek) Bizarain ikastetxe publikora jo dugu, azken bi urteetan ebaluazio sistema birplanteatzen aritu baitira.

Egoera honek ebaluazio prozesua ere hankaz gora jarri digu. Ikastetxean ebaluazio jarraia alde egiten dugu baina argi dago froga zehatz batzuek (batez ere azterketek) badutela bere pisua eta beste elementu batzuk ere aurrez aurre gaudenean soilik ebaluatu ditzakegu, adibidez ikasleen jarrera". Josu Curiel mintzo da, Bizaraingo zuzendaria.

Etiket egin behar izan den hiruhileko honetan ebaluazio jarraitua egin ahal izateko, Bizarain ikastetxean irizpide hauxe jarri zuten: astearren amaierarako, ikasleek gutxienez ekoizpen bat egitea ikasgai guztietan. Horrez gain, astero irakasleek tutoreei gela horretako gorabeheren berri eman diete, ikasleren batek lanik entregatu ez badu, edo dudak izanagatik internet bidez irakaslearekin konektatu ez bada... "Lanak eta ekoizpenak dira ebaluatzeko erabili diren elementuak eta beraz, alde handia egon da aurrez erabili ditugun moldeekin. Azterketa puntualen bat egin da ikasgaiaren batean, baina esan dai-

teke azterketa formatua berez desagertu dela ikasgai gehienetan", azaldu du Curielek. Eta ebaluazio tresna aldatzeak irizpideak birplanteatu beharra ekartzen duela gehitu du: "Irakasleok findu egin behar dugu lan horiek ebaluatzeko gure gaitasuna. Azterketetan errazago egiten zaigu zer dagoen ongi eta zer gaizki markatzea, lanen kasuan ez dago hain definituta eta hori da egin behar duguna, lanen bidez eta beselako formatuen bidez ebaluazio zehatz bat osatzea".

Konfinamendu garairako azterketak baino beste tresna batzuk hobetsi izanak lagunduko al du hurrengo ikasturtean ebaluazio sistema aldatzen? Curielek ohartarazi gaituenez, "inertziak aldatzea ez da erraza, beraz, aste hauetako esperientzia interesgarria izango da baina ez dakit noraino izango den esanguratsua, aldaketak ekartzeko. Itxaropen handiagoa dut epe luzean egindako ibilbidean. Baina egia da badirela azterketen oso aldeko irakasleak, eta egoera honetan beren burua behartuta ikusi dute bestelako elementuak erabiltzera". Azaldu



du ebaluazioaren inguruko hausnarketa ikastetxeetan "poliki-poliki zabalduz" doala: "Ikastetxeetan aldaketa handiagoak eman dira metodologia alorrean, ebaluazioan baino. Ari gara, baina pauso gehiago eman behar dira". Hain justu Bizarain ikastetxea azken bi urteetan ebaluazioa birplanteatzen aritu da eta lan horren berri eman digu.

EBALUAZIO JARRAI ETA ANITZAREN BILA

Bizarain hainbat ebaluazio mota ari da sustatzen: irakasleek ikasleez egiten duten etengabeko ebaluazioa, ikasleek elkarri egiten dioten koebaluazioa eta ikasleak bere buruaz egiten duen autoebaluazioa. "Aurrera begira, ebaluazioaren aldaketak kontzeptu horietan oinarrituko direla iruditzen zait" iragarri du Curielek.

Ebaluazio jarraitu eta anitzak "ikaslearen garapenaren ikuspegi zabala" izaten laguntzen duela adierazi du, eta ikuspegi zabal horren araberrako ebaluazio tresnak behar direla, baina baita

ebaluazio irizpideak ere: "Hau da, zer lortu nahi dugu ikasleen aldetik? eta lortu nahi dugun horren ebaluazioa nola egingo dugu?", bi galdera horiek ditu funtsezkotzat. Azterketa ebaluazio tresna bat gehiago dela adierazi du, eta eba-

"Lanak eta ekoizpenak dira egoera honetan ebaluatzeko erabili direnak. Azterketa berez ia desagertu da"

luazio anitzaren baitan ez lukeela tresna bakarra izan behar, baina bestalde, ez dela deabrutu behar: "Azterketek badute bere funtzioa eta horiekin ere jarraitzea logikoa izan daiteke. Gainera, onartu behar da azterketek irakasleoi segurta-



sunak ematen digutela, familiek argi ikus dezaten zer ari garen ebaluatzen. Ikasle batek suspenditzen duenean, ados ez dauden guraso gehienek horixe eskatzen baitute lehenik: 'Azterketa ikusi nahi dut'".

ZER EBALUATU? ZEHAR-KOMPETENTZIAK

Ikasleengandik lortu nahi duten hori definitzeko, zehar-kompetentziei heldu die Bizarainek azken bi ikasturteetan. Zehar-kompetentziak Espainiako LOMCE legea EAera egokitzeko Jaurlaritzak sortutako Heziberri planak definitzen ditu. Bost dira zehar-kompetentziak, eta ikasgai guztietan landu beharrekoak dira, ikasgai bakoitzaren baitako kompetentziez gain. Hauek dira bostak: komunikaziorako kompetentzia, ikasten ikastekoa, elkarbizitzarena, ekintzailetzarako kompetentzia eta izaten ikastea (autonomia, auto-erregulazioa...). "Azken aldiran egiten ari garen lana hori da, ikasgai guztietan elementu horiek guztiak txertatzea. Hasteko, ikasgai bakoitzaren egunerokoan landu egin behar dira gaitasun horiek, eta ondoren ebaluatu, hau da, nolabaiteko isla izan behar dute ebaluazioan".

Bukaerako kalifikazioan, ikasleek etxera eramaten duten "nota" horretan, zer pisu eman ebaluazioko elementu bakoitzari? "Hori da mamia, eta konfinamenduak eten egin du klaustroan ge-

Koronabirusak suspentsoekin harrapatu bazaitu, zer?



neukan eztabaida hori" adierazi du Curielek. "Badugu kalifikazio bat, 10aren gainekoa, eta 10 puntu horietatik zenbat emango dizkiegu zehar-kompetentzia bakoitzari eta zenbat ikasgaiko kompetentzia espezifikoiari? Horretan ari ginen, zehar-kompetentzietan pisu zehatza ezarri nahi diegu". Adierazi du gaur egun dagoeneko DBHko ikastetxe ia denetan azterketak ez duela %70eko pisu baina handiagoa izaten: "Notaren bestetia lanen ekoizpenek, jarrerak... osatzen dute. Orain konstante horietatik zehar-kompetentzietara jo behar dugu".

KALIFIKAZIORIK GABEKO BULETINAK?

"Datorren ikasturteari begira buletinak aldatu nahi ditugu, familiei helarazten diegun buletina baita azken fasea, eta beraz, buletina aldatzeko prozesu osoa aldatu behar da". Lehen Hezkuntzan (12 urtera arte) asko aldatu dira buletinak, gaur egun ikastetxe askotan kompetentzietan oinarritutako informak egiten dira, eta ebaluazioak ez dira izaten 1etik 10erako kalifikazioak, baizik kompetentzia bakoitzean "hasierako maila, ertaina eta aurreratua" hitzekin definitzen diren graduak. Gainera item edo adierazle estandar askoren bidez, informazio aberatsa ematen dute, ikaslea kompetentzia bakoitzaren garapenean zein fasetan dagoen deskribatzeko". Curielek umorez kontatu du,

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak ikastetxetara helarazitako *Ikasturte Amaierako Planak* ezarri du EAEko ikastetxeetan ikasturte amaierako ebaluazio orokorrari buruzko irizpide argia: lehen eta bigarren ebaluazioek markatuko dute ikasturtearen promozioa, hau da, lehen bi ebaluazioetako ikasgaiak gaindituta dituen ikaslea hurrengo ikasturtera pasatuko da. Ondorioz, Bizarainek honela jotatzea erabaki du, bertako zuzendari Josu Curielek azaldu duenez: "Lehen eta bigarren ebaluazioa suspendituta zeukan ikaslea, ebaluazio horietako edukiak sakontzen zentratu behar zen. Irakasleok antolatu behar izan gara eta bereizi ikasgai bakoitzean zein ikasle zentratu behar zen lehen bi ebaluazioetan eta zein ikasle egingo zuen aurrera hirugarren ebaluazioko edukietan".

Ikastetxeak erabaki du lehen eta bigarren ebaluaketako helburuak lortzea zela ikasturte osoko gutxienekoa: "Beraz, horiek ongi oinarritzea izan da helburua. Lanketa espezifikoa bat prestatu eta materiala sortu dugu irakasleok, eta horietan sakontu dute ikasleek, ongi lortu ditzaten eduki horietako helburuak".

Lehen ebaluazioak gaindituta zituzten ikasleek aurrera egin dute hirugarren ebaluazioko edukiak lantzen, "baina hiruga-

ren ebaluazioko helburuak ateratu egin ditugu ikastetxearen urte osoko helburuetatik: ezin gara irailan itzuli pentsatuz ikasle denek hirugarren ebaluazioko helburuak lortu dituztenik, izan ere ikasle batzuk martxoan bitarteko lanketarekin geratu dira". Hirugarren ebaluazioko edukia "modu batera edo bestera" irailan berriro eman edo birpasatu beharko dutela argi du, eta udako lanak ere baliatuko dituzte eduki hauek sendotzeko.

ERREKUPERAKETA EGIN DAITEKE AZTERKETARIK GABE

Lehen, bigarren eta hirugarren mailetako ikasleek aurreko ebaluazioetako ikasgaien ezohiko errekupeazioa ez dute azterketa formatuan egingo, beste formatu batzuetan baizik: lanak edo bes-telako probak, "mintegi bakoitzak erabakitzen du nola egin" zehaztu du Curielek.

Laugarren mailakoei ekainean errefortzu klaseak eskaini dizkiete aurrez aurre, Hezkuntza sailak behartuta. "Gure ustez ekainean aurrez aurrekora itzultzea ez zen beharrezkoa, baina Hezkuntzatik esan digute eskaini behar dugula, eta eskaini dugu; ea zenbat ikasle etortzen diren, ez baita derrigorrezkoa". Laugarren mailakoei, ikasgai gehienetan, ezohiko probak azterketa formatuan egingo dituzte, eta modu presentzialean.

adierazleak adierazle, kalifikazioa tartean denean zenbakira mugatzen dela ikuspegia: "Buletina irakurtzerakoan gure joera zein da? azken zutabera joatea, kalifikaziora. Guraso bezala gertatu zait, buletinetik kalifikazioa kendu dutenean, orduan jarri naizela adierazleak irakurtzen, eta informazio zehatzagoa ematen dute".

Lehen Hezkuntzan mota honetako buletinak erabiltzen diren bitartean,

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe ia denetan kalifikaziodun buletina da nagusi. Bizarain ikastetxeak aldaketarako bidea hasi du: "Ziurrenik ez dugu LHko informea bezain luzea egingo, baina aberastu egin nahi dugu ematen den informazioa. Horretarako, buletinean zehar-kompetentzien ikuspegia txertatu nahi dugu, familiek ikus dezaten beste arlo horietan ere seme-alabak zer garapen izaten ari diren". ●

Aizarnako baserriaren erresilientzia gaitasuna mendez mende

Aizarnako Aranguren baserri alboko lurra aztertuta 1.500 urteko nekazaritzaren bilakaera irakur dezakegu. Landa-paisaia historian zehar irakurriz, posible da ingurumenarekiko jasangarriagoak edo suntsikorragoak diren praktikak identifikatzea, etorkizuneko estrategiak josteko irakaspen baliotsuak lortuz.

 JOSU NARBARTE

Aizarna 200 biztanle inguruko herria da. Gipuzkoa iparrean kokatuta dago, kostatik hurbil, sakonune karstiko txiki baten barruan. Bertako paisaia Euskal Herri atlantikoan ohikoa den mosaiko dibertsifikatuak osatzen du, baserriak, soroak, larreak zein mendiak tartekatuta. 2016tik, Euskal Herriko Unibertsitateko Ondare eta Paisaia Kulturalen ikerketa-taldeak tokiko paisaiaren epe luzeko historia aztertzeke proiektua garatu du bertan, eta ia 2.000 urteko historia dokumentatu ahal izan du.

ERROMATAR GARAIKO BIZIGUNE BAT

Lehen sorpresa Erretore etxearen lorategian egindako indusketa arkeologikoak ekarri zuen, parrokia-elizatik oso hurbil. Bertan, metro eta erdiko sakoneran, neurri handiko hainbat habe azaldu ziren, guztiz kiskalita; inguruko lurra ere gorrituta ageri zen, suaren ondorioz. Habeak haritz-egurrezkoak ziren, eta eraikuntza-markak ere erakusten zituzten. Egitura arkitektoniko baten arrastoak ziren, ziur aski etxe batenak; erradiokarbono bidezko datazioak K.o. I. mendean kokatu zuen haren erretzea. Data horrek bat egiten du indusketan topatutako zenbait zeramika-puskarekin, erromatar garaiko ohiko moldeak erakusten baitituzte.

Erretore etxekoa ez da eskualdean topatu den Antzinaroko lehen aztarna. Amaldako koban, adibidez, K.a. I. mendeko txanponak azaldu ziren, eta ezaguna da Zarauzko zein Getariako portuak martxan zirela garai hartan. Hala ere, Aizarnako aurkikuntzak interes berezia du, egungo herrien azpian halako erre-

gistroak ohikoak izan daitezkeela iradokitzen baitu. Kontuan izanik Euskal Herriaren isurialde atlantikoan landa eremuko aztarnategi arkeologikoak oso urriak direla, planteak liteke, beraz, orain arte “historiarik gabe” mantendu diren herri eta auzo askok erro zaharrak izan ditzaketela.

LUR-ERREGISTROAK, IRAGANEKO NEKAZARITZAREN ARTXIBO

Aizarnako paisaiaren bilakaera historikoa nekazaritzak baldintzatu du batez ere. Aski da herrian barna paseatzea oihartzeko jatorrizko topografia guztiz eraldatuta dagoela. Gainazal lauak sortzeko, higadura gutxitzeko eta uren zirkulazioa errazteko, soroak hormaz, lubakiz zein betelanez egokituta ageri dira. Herriko hainbat puntutan egindako zundaketa geoarkeologikoek erakutsi dutenez, betelan horietan jasotako lur-erregistroek iraganeko jardueren artxibo aberatsa osatzen dute, egungo paisaia historia luze baten emaitza dela frogatuz.

Aranguren baserri alboko ibarrak, adibidez, bi metroko betelana dauka. Horren baitan zenbait geruza bereiz daitezke, fase historiko desberdinen lekuko. Sakonena —eta, beraz, zaharrena— lurzoru “naturalaren” gainean kokatuta dago; jatorrizko sedimentuaren antzeko buztin-mineralez osatuta egon arren, geruza honen ezaugarri fisiko-kimikoak iradokitzen dute tenperatura altuak pairatu zituela. Ondorioz, pentsa daiteke inguruko mendi-magalak suaren bidez deforestatu zirela, gero errautsez aberastutako lurra soroaren betelan gisa erabiltzeko.

Erradiokarbono bidezko datazioak V.

edo VI. mende aldera kokatu ditu operazio horiek, baina badirudi haien bidez sortutako lurzorua zenbait mendez landu zutela. Alde batetik, materia organikoaren kontzentrazioa areagotu egiten da geruzaren gainazalean, ongarriztearen ondorioz, eta bestetik lurra-aren propietate magnetikoek adierazten dute suaren erabilera ohikoa izan zela haren kudeaketan. Baliteke soroa zenbait urtez landu ondoren lurgorri uztea, gero bertan hazitako sasiak erre eta haien errautsekin bere emankortasuna berritzeko. Aizarnako landa-paisaiak, beraz, Erdi Aroaren has-tapenean kodifikatutako laborantza-ziklo honetan ditu bere erroak.

Egoera guztiz aldatu zen XIV. mendean, uholde batek Arangurenko soroa suntsitu zuenean. Hainbat mende lehenago jarritako betelanaren gainazala urak ekarritako hartxintzar-geruza batek estali zuen, laborantza oztopatuz. Kontutan hartu behar da garai hartan hasi zela Izotz Aro Txikia, Europa osora ezegonkortasun klimatikoa eta, ondorioz, krisi ekonomiko zein soziala ekarri zituen. Euskal Herrian ere, jauntxoaren arteko bando-gerrek argi erakusten dute garai hartan nagusitu zen giro nahasia; 1383koa da, hain zuzen ere, Aizarnako biztanleek Zestoako hiribildua eraiki ahal izateko Gaztelako erregeri egindako eskaera, “inguruko zaldunen indarkeria” pairatzen zutela eta horrek kalte larriak eragiten zizkiela argudiatuz.

Krisi-egoera hori tokiko paisaiaren berantolaketan islatu zen. Arangurenko soroa guztiz berreraiki zuten XV. mendean, ia metro beteko beste betelan bat gehituz eta egun ere ikus daitekeen eus-



ARANGUREN BASERRI ONDOKO SOROA ZUNDATZEN.

Erreportajearen egile Josu Nabarte lanean. Ibar honek bi metroko betelana dauka. Horren baitan zenbait geruza bereiz daitezke, hainbat fase historikoren lekuko.

te-horma paratuz. Horrez gain, Zestoa-ko Udal Artxiboko 1479ko agiri batek “*acequia*” edo kanal bat aipatzen du soro honetantxe, urak drainatzeko.

Aizarnako landa-paisaiaren hezurdu-
ra osatzen duten baserrien lehen aipa-
menak ere XV.-XVI. mendeetakoak dira.
Garai honetan, garia eta artatxikia ziren
laborantza-sistemaren oinarria, etxe-in-
guruetan lantzen ziren fruta eta baraz-
kiekin batera. Horrez gain, kolektiboki
kudeatutako herri-lurrak ere baziren, ba-
tik bat inguruko mendietan: bertatik otea
eta garoa bezalako lehengaiak lortzen
zituzten, gero abereen azpi-gai gisa era-
bilita simaurra ekoiztu eta soroen eman-
kortasuna areagotzeko. Ondorioz, bioma-
sa-transferentzia egin zen mendietatik
soroetara, bi aldean arteko desberdinta-
sunak areagotuz, bai estaldura begeta-
lean eta baita lurzoruen kalitatean ere.

ZEIN ETORKIZUN BASERRI-PAISAIARENTZAT?

Nekazaritzak ingurumenaren gainean
zuen eragina areagotu egin zen XVII.
mendetik aurrera. Artoa bezalako espe-
zie amerikarrak sartzean, lur berriak
landu eta biurteko errotazio intentsiboa
garatzeko aukera sortu zen, garia, ar-
toa eta arbia txandakatu. Aranguren,
Etxeberri eta Potzueta etxeen inguruan
jasotako lur erregistroek erakusten du-

Aizarnako baserrien
lehen aipamenak
XV.-XVI. mendeetakoak
dira. Garai honetan
garia eta artatxikia ziren
laborantzaren oinarria

tenez, baserri modernoak ongarriz eta
karez bete zituen soroak, lurra etengabe
lantzeak eragindako pobretzea eragoz-
teko. Horren lekuko dira, besteak beste,
Aizarnako paisaian tartekatuta oraindik
ikus daitezkeen hogeitakarobitik gora-
koen arrastoak.

Eredu hori desagertzen joan da XX.
mendeaz geroztik, eta gaur egun abel-
zaintzarako belardiak dira nagusi. In-
dustrializazioak ekarritako nekazaritza
eredu berriak lurraren eta lanaren arte-
ko harreman berri bat ekarri du, inten-
sifikazioa zein teknifikazioa indartuz.
Prozesu hau argia da lur erregistroetan,
purinen eta bestelako ongarrri industria-
len erabilerak arrasto argia utzi baitu ma-
teria organikoaren edota beruna bezala-
ko metal astunen kontzentrazioan. Hala
eta guttiz ere, ikusteko dago eredu berri

hau jasangarria izango den epe ertainean,
merkatuaren lehiakortasun-logikak inpu-
tak etengabe handitzea eskatzen baitu.
Gauzak horrela, ez da harritzekoa biztan-
le ugari kezkatuta azaltzea betidanik eza-
gutu duten paisaiaren etorkizunarekin.

Aizarnako adibideak erakusten due-
nez, Euskal Herriko baserri-paisaiak di-
rudiena baino erro sakonagoak izan di-
tzake. Bere egungo itxura, oro har, Aro
Modernoan egituratu zen arren, argi
dago ingurumena modu berezi batean
moldatzera eramanez bilakaera kul-
turalaren oinarriak askoz lehenago eza-
rri zirela, Goi Erdi Aroan edo, are, Antzi-
naroan. Alde batetik, honek erakusten
du eskualde honetako herri-sareak
erresilientzia-gaitasun nabarmena izan
duela, koiuntura historiko desberdinak
gora-behera, egokitu eta bere oinarri-
ko fisioterapia mantendu baitu. Beste
aldetik, erresilientzia horren zergatiak
aztertzerakoan, ezinbestekoa da kontu-
tan hartzea baserri-paisaiaren berezko
ezaugarriak diren dispersioa eta balia-
bideen kudeaketa dibertsifikatua. Hala,
ustiategien eskala txikiak zein erabaki-
mena etxe-mailaraino deszentralizatu
izanak aldeko faktore gisa jokatu izan le-
zakete, edozein krisi egoeraren aurrean,
estrategia produktiboak birkonfigura-
tu eta tokiko errealiterako egokitutako
erantzunak emateko orduan. ●



Kolonbiako Estatuak paramilitarismoa zuritu nahi du biktimen koordinatzaile berriaren bitartez”

JORGE FREYTTTER-FLORIAN

Kolonbiako Gobernuak hartutako erabaki batek hautsak harrotu ditu berriki: Jorge Rodrigo Tovar aukeratu dute biktimen koordinatzaile kargurako, *Jorge 40* ezizenez ezagutzen den buruzagi paramilitarraren semea. Haren agindupean torturatu eta hil zituzten biktimen familien samina areagotu du neurriak, baita Euskal Herrian errefuxiatu gisa bizi den Freytter familiarena ere. Izendapenak ez duela biktimen adostasunik nabarmendu du Jorge Freytter-Florianek, indarkeria horren biktima zuzenetako batek.

 IBAI TREBIÑO

Maiatzaren 19an iragarri zuen Kolonbiako Gobernu eskuindarrak Jorge Rodrigo Tovarrek zuzenduko duela Barne Ministerioaren menpe den biktimen koordinazioa. Izendapenak polemika bizia piztu du, koordinatzailea *Jorge 40* ezizenez ezaguna den Jorge Tovar Pupo buruzagi paramilitar ohiaren semea baita.

Oraindik gatazkan bizi zen Kolonbian lurrikara politikoa eragin du izendapenak eta kritika gogorak jaso ditu Ivan Duque presidentearen erabakiak: gobernuaren "moral eza" aipatu dute batzuek –besteak beste Andres Pastrana presidente ohiak, Bogotako alkate Claudia Lopezek edota oposizioko buru Gustavo Petrok-. Beste hainbatek aldiz, txalotu egin dute Kolonbiako ultraeskuindarren erabakia, esaterako Katherine Miranda Alderdi Berdeko kideak, Tovar "adiskidetasunaren sinbolo" delakoan edota Rodrigo Londoño *Timochenko* FARCe

gerrilari ohiak. Izendapenak "ez diola inolako kezkarik sortzen", adierazi du *Timochenko*-k. Adierazpen horrek ha maikagarren polemika piztu du FARC alderdiaren barruan eta hainbat militantek dimisioa eskatu du, bere hitzak "jasanezinak" direla argudiatuta.

Jorge Rodrigo Tovarren izendapenak iraganeko zauriak ireki ditu Kolonbian eta garaileen kontakizuna berreskuratu du hein batean. AUC –Kolonbiako Auto-defentsa Batuak– talde paramilitarreko "iparraldeko blokeko" buruzagi militarra izan zen *Jorge 40* eta Karibe eskualdeko departamenduetan 600 bat pertsona hil zituen gutxienez, berak aitortuta, 1996 eta 2006. urte artean, AUCk disoluzioa iragarri zuen arte.

Jorge 40-ren biktimen artean, Jorge Adolfo Freytter Romero Atlantiko-ko Unibertsitateko irakaslearen hilketa batasia dugu kasurik esanguratsuenetarikoa. 2001eko abuztuaren 28an, Freytter

irakaslea hainbat erretiraturekin elkartu ostean –aholkularitza lanak egiten zituena– Barranquillako bere etxera joan zen. Bidean AUC talde paramilitarreko talde batek Freytter atxilotu eta desagerrazi zuen. "Itsasontzi-tailer batera eramane zuten eta bertan bortizki torturatua izan zen 24 orduz", azaldu dio ARGIAri bere seme Jorge Freytter-Florianek. Egun bat geroago, arrantzale batzuek gorpua aurkitu zuten Barranquilla eta Magdalena departamenduen arteko errepidean, Palermo udalerrian, "arroparik gabe, torturatua", Freytterren semeak azaldu duenez. Iragan urtarriean Kolonbiako fiskaltzak "gizadiaren aurkako krimenez" jo zuen Freyterren hilketa, sei irizpide kontuan hartuta.

Jorge Freytter Romero irakaslea itzal handiko pertsona izan zen Atlantikoko Unibertsitatean. Soziologia irakasle edota sindikalista gisa ez ezik, baita ikasle garaietan ere. Esaterako, ikasle bozketa



Aurrena Venezuelara erbesteratu zen. 2006an heldu zen Euskal Herrira eta ordutik Bilbon bizi da Jorge Freyter-Florian kolonbiarra.

prozesuetan inoizko emaitzarik onenak lortu zituen Freyterrek. Aktibismo sozialari ekin zion gazteetatik eta Errusia eta Txinako literaturak influentzia handia eduki zuen bere militantzia politikoan. “Ezkerreko perspektibatik ikusten zuen herrialdea, pentsamendu kritikoa garatuz” nabarmendu du semeak.

Aitaren hilketaren harira, Freyter-Florianek uste du “emblematikoa” izan zela hura, “erakusten baitu GAULA -bahiketak ekiditeko indar militar eta polizial berezia- eta Kolonbiako Estatuaren indar publikoak elkarlanean aritu zirela paramilitarrekin”. Adierazgarria da bahitu zuten tokitik tortura-

tu eta hil zuten tokira bidean, Kolonbiako Armadaren eta Poliziaren hainbat kontrol-gune igaro izana eta horrek “indar militar eta talde irregularren arteko lotura erakutsiko luke”, Freyterren semeak dioenez.



Nire aitaren kasuan paramilitarren eta estatuko indarren arteko harremana frogatuta dago, ikerketa judizialak erakutsi du Kolonbiako Estatuak hainbat paramilitar eta funtzionario ordaindu zituela akademiko batzuk hiltzeko”

Bestalde, azpimarratu behar da heriotza baino hilabete lehenago, Freyter Romero bera atxilo eraman zuela Poliziak eta ondorioz, “jarraipen baten biktima” bilakatu zen. “Aitaren heriotza da paramilitarrek sikariorik erabili ez duten bakarrenetarikoa: haiek antolatu eta burutu zuten ekintza, Poliziak egindako jarraipena oinarri hartuta”, azpimarratu du Freyter-Florianek.

Orduan 15 urteko gaztea zen Jorge Freyter-Florian eta aitaren hilketaren ondoren bere familiarekin batera ihes egin behar izan zuen Kolonbiatik, “armadaren mehatxu zuzenak zirela eta”. Lehenik Venezuelan eta azkenik, 2006an, Euskal Herrian erbesteratu ziren, ACNUR eta beste erakunde humanitarioen laguntzari esker.

Ordutik Bilbon bizi da eta ikasketak amaitzeko aukera izan du Euskal Herriko Unibertsitatean. Euskal Herriko egoera politikoa ezagutu eta “internazionalismoaren ikuspegitik” hainbat eragile politiko eta sozialekin lanean aritu da, baita hainbat ikerkuntza proiektu egin ere, besteak beste Alexander Ugaldede Zubiri eta Francisco Letamendia *Ortzi* irakasleekin edota Ainara Lertxundi kazetariarekin batera. Horrela, 2012an, EHUren laguntzarekin, *Kolonbia, oraina eta etorkizuna itxaropen garaian*

ikerketa liburua publikatu zuten. Hego Amerikan eta bereziki Kolonbiako unibertsitateetan biolentzia politikoaren fenomenoaz aztertzen du lanak.

Liburua aitari eta gatazkaren biktimei omenaldi xumea izan zela dio Freyterrek, paramilitarrak, *Jorge 40* buru zela, Barranquillako eskualdeko arlo akademikoan bereziki bortitzak izan baitziren. Datuen arabera 25 akademiko hil zituen AUCren paramilitarismoak 10 urte haietan.

“LIDER SOZIAL ETA SINDIKALISTEN KONTRAKO GENOZIDIOA EGITEN ARI DIRA KOLONBIAN”

50 urte baino gehiago dira Kolonbiako gatazka armatua hasi zenetik, eta geroztik Kolonbiako Gobernuaren “barne etsaiaren” doktrinaren biktima izan dira milaka pertsona, tartean Freyter irakaslea. “Botere egituren ideologiatik kanpo geratzen diren sektoreak –nekezariak, akademikoak, eta disidentek oro har– nazioaren etsai gisa seinaltatzea” du helburu doktrinak eta ondorioz, “haien kontra egitea”, salatu du Freyter-Florianoek. Bere aitaren kasuan adibidez, paramilitarren eta estatuko indarren arteko harremana frogatuta dagoela nabarmendu du: “Ikerketa judizialak eta penalak erakusten du nola estatuak hainbat paramilitar eta funtzionario ordaindu zituen akademiko batzuk hiltzeko”. Tamalez, Freyterrek dio “sindikalistak edo irakasleak hiltzeko ordaintzea” gaur egun ere gobernuak errepikatzen duen estrategia dela.

Kolonbian gauzak ez direla asko aldatu dio Freyterrek eta “lider sozial,



KOLONBIAKO AUTODEFENTSA BATUAK (AUC) eskuin muturreko erakunde paramilitarra izan zen. 1997an sortu eta 2006an desmobilizatu zen.

sindikalista eta akademikoen kontrako genozidioa” gertatzen ari dela uste du. FARCEk eta gobernuak 2016an sinatutako akordioaren ostean, ekintzaile sozial eta politikoen hilketa ez dela eten gaineratu du gazteak. Historian eta bereziki bake prozesu guztien ostean “sistematikoki gertatu den zerbait” dela dio.

BORRERO IZATETIK BIKTIMA IZATERA

Paramilitarismoari dagokionez, 2006an ekin zion armagabetzeari AUC talde paramilitarrak. Desmobilizazio prozesu horren barruan, Kolonbiako justiziak AUC taldeko 14 buruzagi estraditatu

zituen AEBetara 2008an, narkotrafikoa egotzita, tartean *Jorge 40*. Aurten baina, 12 urteko kartzela zigorra amaituko du AEBetan eta horrezkero Kolonbiara itzuli ahal izango da, “aske bizitzera” azpimarratu du Freyter familiak. “Narkotrafikoaren kondena beteta, inork ez dio hilketen inguruko azalpenik eskatuko *Jorge 40*-ri”, uste du Freyterrek eta barne ministerioko biktimen koordinatzaile haren semea izandatu izana “sari gisa” ikusten du, “paramilitarismoa eta bere aitaren krimenak zuritzeko”.

“*Jorge 40*-k bere krimenengatik erantzun beharko luke lehenik eta behin, ez da gerra-presoa, gerra kriminala baizik. Arazoa da *Jorge 40*-k hilketak Kolonbiako Estatuaren laguntzaz egin zituela”, azpimarratu du Freyterrek.

Testuinguru honetan, “gu, biktima gisa, Jorge Rodrigo Tovarren izendapenaren kontra gaude erabat, ez baitio ekarpenik egingo gatazkaren egiazko kontakizunari”. Gainera, izendapena “biktimen adostasunik gabe” egin dela dio Freyter familiaren ordezkariak, eta hori “larria” iruditu zaio, are gehiago “adiskidetzeari eta egiarekiko zorra denon ahotan dagoen garai hauetan”. Freyterrentzat erreparazioaren bidean “paramilitarren eta estatuaren segurtasun indarren arteko harremana ikertzea eta argitzea beharrezkoa da”. “Orain borreroak biktima bezala aurkeztu nahi dizkigute”, dio atsekabez Freyterrek. ●



Ezkerrean, Kolonbiako Gobernuak biktimen koordinatzaile kargurako izendatu duen Jorge Rodrigo Tovar. Eskuinean, bere aita, Jorge Tovar Pupo ‘Jorge 40’ paramilitarra.

AZOKA 2020



EROSI
INTERNETEKO
ARGIAREN
AZOKAN

azoka.argia.eus

Potemkin, fikzio eta errealitatearen artean



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Krimea, 1787. Katalina II.a Errusia-koak (1729-1796) bisitaldi ofiziala egin zuen, Errusiak konkistatu berri zuen lurraldea nola zegoen ikusteko. Tsarina gustura geratu omen zen ikusi zuenarekin; herriaren ongizatea bermatzen zuten politika egokiak ezartzen ari zen.

Baina errealitatea oso bestelakoa zen. Konkista zuzendu zuen militarrek, Ukrainako gobernadore Grigori Potemkin (1739-1791) erreginari aurkeztu zizkion herri idilikoak faltsuak omen ziren. Kale batzuetako etxeak kartoizko fatxadetz estali omen zituen, inguruko biztanleak dotore janztera behartu zituen eta populazioa mugiarazi zuen, herri biziagoak irudikatzen. Desfileak eta su artifizialak ere antolatu omen zituen. Edo horixe zabaldu zuten behintzat Potemkinen gortean zituen arerioek. Ukrainako gobernadore izan eta Itsaso Beltzeko errusiar ontzidiaz antolatzeaz gain, Potemkin Katalina Handiaren maitalea ere bazen, eta primeran moldatzen zen gorteko trikimailuetan. Lagun nahiz etsai boteretsuak egiteko erraztasun handia eman zion horrek.

Orduz geroztik, "Potemkin herria" esamoldea herri baten edo beste edozer gauzaren egoera tamalgarria estali nahian herri edo gauza hori oso ondo



JOHANN BAPTIST VON LAMPI

GRIGORI POTEMKIN (1739-1791) ERRUSIAR MILITAR ETA POLITIKARIA. ABIZENA NAGUSIKI *POTEMKIN KORAZATUA* (1925) FILMAREKIN ETA ERRUSIAR IRAULTZAREKIN LOTU ARREN, "POTEMKIN HERRIA" ESAMOLDEAK JATORRI BERA DU.

aurkezten denean erabiltzen da. Fikziozko Potemkin herria da, esaterako, Berlangaren *Bienvenido Mr Marshall* (1953) filmeko Villar del Río herria; Gaztelako herria Andaluziako topikoz betetako he-

rriz mozarrotzen dute. Errealitatean, 1950eko hamarkadan Ipar Koreako zonalde desmilitarizatuan eraikitako Kijōng-dong da gehien aipatzen den adibidea. Baina esamoldearen adiera zabalduz gero, Las Vegas, esaterako, beste adibide bat izan daiteke; hiria zeharkatzen duen erdiko etorbideko neoi eta distiratik aldenuz gero, hiriaren alde itsusi eta miserablea agerian geratzen da. Eta, hain urrutira joan gabe, turismoa erakartzearen izenean, ez ote dira ari hainbat herri eta hiri Potemkin herri bihurtzen?

Potemkinen Krimean egindakoa egia izan ala ez, haren izena betirako itxurakeriarekin lotuta geratuko zen... iraultzarengatik eta zinemarengatik ez balitz. Potemkin hil eta mende batera, 1898an, Errusiar Inperioko Armada korazatu bat eraikitzen hasi zen Itsaso Beltzeko ontzidiko parte izan zedin. *Potemkin* izena jarri zioten. 1905ean *Potemkin* korazatuko marinela matxinatu egin ziren eta, gerora, 1917ko iraultzaren lehen pausotzat joko zuten ekintza hura. Eta 1925ean Sergei Eisenstein zuzendariak gertakaria jaso zuen zinemaren historia-ko film onenetarikoan: *Potemkin korazatua*. Eta horixe da, herri faltsuen gainetik, abizena entzun eta gehienei gogora etortzen zaiena. ●

Wilsonen arkua ala Herodesena?

Wilsonen arkua Erosten harresirako sarbide nagusietakoa da eta Jerusalemeko paisaiaren parte izan da mende luzez. Baina zenbat mendez? Orain arte hainbat hipotesi egin dira: 2.000 urte inguru zituela uste zuten batzuek; beste zenbaitentzat berriagoa zen, VII. mende ingurukoa. Bada, mikroarkeologia teknika berriak erabiliz, Weizmann Zientzia Institutuko arkeologoek lehen hipotesia egiaztatu

dute: arkuak 2.000 urte inguru ditu eta Herodes I.a Handiak (K.a 73-4) eraikiarazi zuen. Jakina, Herodesek berak ez zuen harri bakarria mugituko, baina Charles Wilsonen bano lotura estuagoa izan zuen behintzat arkuarekin. Wilson XIX. mende amaierako britainiar ordenantza inspektorea izan zen. Hainbat urtez Jerusalem bizi izan zen eta horregatik dauka monumentu historikoak haren izena. ●



JEREMY SHAM

EKONOMIA SOZIAL ETA ERALDATZAILEAREN 'LAIA' ALDIZKARIA



Laia beti izan da iraultzeko

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Zorteko zarete Urruñatik Donostiarainoko eremuko ARGIA Jendea. Datorren astean Bidasoaldeko BDSkoop kooperatibak argitaratutako *Laia* aldizkaria jasoko duzue etxean astekari honekin batera. Bidasoaren hegoaldeko bazterrean 2018an sortutako proiektua da kooperatiba, bailaran ekonomia sozial eta eraldatzailean funtzionatzen duten enpresa eta taldeak lotzeko helburuarekin antolatua. *Laiarekin* oraingoz batu zaizkien proiektuen eta beren esperientzien berri eman nahi dute.

Ez al du gure buruak askotan ekonomia sozial eta eraldatzailea lurrarekin, kontsumo taldeekin lotzen? Galdera horri buelta eman eta jendeari ekonomia bizitzeko modu horren atzean lurra bai baina zerbait gehiago ere badagoela ikustarazteko sortu zen BDSkoop. Ikustarazteko badaudela Izarkom bezalako telekomunikazio enpresak, edo hirigintza beste era batera ulertzen duen Hiritik At taldea, edo Antxeta, Bidasoaldeko irrati elkarte euskalduna.

Kooperatibak berak badu gune fisiko eta taldeko kide diren zenbaitek erabiltzen dute. Beste batzuek ez dute behar hori, badutelako beren lokal edo espazio propioa, edo ez dutelako espazio fisiko baten beharrik.

LAIA ALDIZKARIA

Aitziber Zapirain taldekideak aitortu du oraindik ere nabari dutela “hasi berriak” direla eta barne antolamendu kontuak ixten ari direla. Baina gustura agertu da proiektuarekin eta ikusten dio etorkizuna. “Urte eta erdiko ibilbide honek sarea osatu eta pixka bat egonkortzeko balio izan digu eta orain beste herritarrei zabaldu nahi diegu hemen sortutakoa”. ARGIArekin batera banatuko den aldizkari honetan (ez zaio ARGIA Jende guztiari banatuko, Urruñatik Donostiarainoko eremuan zentratuko da) BDSkoop barruan dauden proiektuen berri emango da “modu ulerterrazean, modu bisualean”, azaldu du Zapirainek. “*Laia* irakurtzeko ez da ekonomia sozial eta eraldatzailean aditua izan behar eta nahi duguna da ahalik eta jende gehienengana iristea eta modu honetan lan eta bizitzeko har hori piztea”.

Aldizkariaren maiztasuna gehiegi zehaztu ez badigute ere, garbi adierazi dute ez dela zenbaki bakarra izango eta aurrerago ere argitaratuko dutela *Laia* aldizkaria. Inork bere proiektua bertan azaltzeko interesa izango balu, Bidasoaldekoa izan, Euskal Herriko beste punturen batekoa eta zergatik ez, baita atzerrikoa ere, gustura jasoko dute zuen deia BDSkoop-en. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Ematen dituzuen berriak gogoz hartzen ditudalako eta gainera euskaraz".

Donostiako Maria Eugenia

"Euskaraz idazten den aldizkari landua delako. Artikulu interesgarriak argitaratzen dituzue, eta ikasi egiten dut zuek irakurrita".

Bergarako Aitor

"Euskeraz delako, desberdintzen den kazetaritza egiten duelako".

Amezketako Eladi

"Proiektu beharrezkoa zein eredugarria iruditzen zaidalako eta kazetaritza independentea bultzatu nahi dudalako"

Bilboko Jone

"Harpidetza politika ikaragarria iruditzen zait. Auzolan moduko bat. Bakoitzak ahal duena eman... Mundua hobea izango litzateke horrela gehiago funtzionatuko bagenu. Hartu-Eman".

Orexako Joseba

AKAINAK UXA!



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Akainek gustuko dute gure lagun baten larrua. Ia mendira joaten deno, akainez josita etxeratzen da, eta egunetako lana izaten du haiek topatu eta garbitzea; berrogeitik gora ere etxeratu izan ditu.

Geurean akaina ez da herenegun bazkalondoko kontua. Oso ezaguna dugu, begira zenbat izen topatu ditudan, eta besterik ere izango du: akain, bakasta, kapar, akenzore, zigarrak, lakasta, akein, lakain, bakasta txipi, lakats, artapo, kapasta, kaskurri, lapar eta itain.

Etxea mendian eta mendia etxe baduzu, akainez inguratuta bizitzea gerta dakizuke. Urrutira gabe dituzun abereek eta animaliek, ardiak, katuak, behiak, txakurrak eta abarrek guk bezalaxe akainak izan ditzakete apopilo; eta erasoa larria izan daiteke: zenbait akainek Lyme-ren gaitz ikaragarria kutsa dezake ausiki egiten duenean.

Etxean etxeokak behintzat babesteko aukera badugu. Akainak uxatzen dituzten landareak jarri etxe inguruan: baratzean, balkoian, lorategian, terrazan, leiho koskan, bide aldamenean... Hedatuko dituzten lurrinak guretzako atseginak dira, baina akainek gorroto dituzte. Usainagatik jarriko ditugu batzuk, jan-garriak direlako beste batzuk eta beste batzuk ederrak direlako.

Txortaloak (*Mentha pulegium*) akainak bezala eltxo eta euliak ere uxatzen ditu; era berean oso polita da, bere lore ubelkin eta bere egoskin ezaguna oso gozosa da. Salbia sendakaria (*Salvia officinalis*) intsektu odolzaleen amesgaiztoa da, akainak eta arkakusoak uxatzen ditu. Senda-belarra ere bada; hostaje argi iletu eta lore lilaxkekin, ederra ikusteko; sukalde-



rako ere belar egokia eta usainez jantzia, bi hankako batzuek maite ez badute ere. Asentsio-belarrak (*Artemisia absinthium*) osagai ezatseginak eta usain mina ditu, uxatzaile aparta da; handia egiten da, kolore gris argia du eta lore larriak. Bortusaia (*Ruta graveolens*) askoren etsaia da: akainena, baina baita arkakuso, euli, kakkalardo, bare eta abarrena ere. Onddoen eta mikrobioen aurkako ezaugarriak ditu. Hostaje urdinska-metalkara du, eta lore hori ttikiak ematen ditu. Indiako krabelinaren edo tagetearen (*Tagetes patula*) hostajearen usain ahulak eta sustraiek lurpeko nematodoa, euli zuria eta noski, akaina aldunduko dituzte. Lore dotorea du eta erraz hazten da. Ezkaia (*Thymus comunnis*) betirako lagun beharko genuke: akainak uxatzeaz gain usain ederra du, loraldi ttiki polita eta sukalderako bidelagun aparta da. Albahaka edo brasila (*Ocimum basilicum*) ezaguna da bere lurri-nagatik. Egun erdia baino gehiago eguzkitan badago ederki aienatuko du makina bat intsektu. Barzatezik sukalderako

Argazkian, Indiako krabelinak edo tageteak, tomate eta uraza artean.

bidea azkar egiten duen horietakoa, lore ttiki eta polita du. Urtero berritu behar da, baina merezi du. Larranbiloak edo kamamilak (*Matricaria chamomila*) duen usaina ere ez dute maite akainek eta abarrek. Guretzako gustagarria da, bistarako bezala ahosabairako. Usain geranioak (*Pelargonium graveolens*) izenari ohore eginez lurrin nabarmena du eta guretzat gozosa dena akainentzat okaztagarria da. Erromeroa ere (*Rosmarinus officinalis*) baratzera jantzi, intsektuak eta zenbait lagun usainarekin uxa eta plateretako gozatu amaitzeko adiskidea da. Urreliliak edo krisantemoak (*Chrysanthemum spp.*) piretrina deituriko osagaia du: intsektizida natural indartsua da eta akainak eta abar berarengandik ederki begiratzen dira.

Akainak haizatu, ingurua lurrindu eta jantzi eta ahosabaia gozatu, zer gehiago behar dugu? ●

Ostegunero
kontsultategia
18:00etan

Ostegunero 18:00etan landare kontsultategia egiten du Jakoba Errekondok zuzenean, www.argia.eus webgunean edo **Facebookeko Bizi Baratzea** orrian.

Bidali zure galderak aurrez:
landarekontsultategia@bizibaratzea.eus

HAZITIK AZITARA

BARATZEAN LANDAREGILE HANDIEKIKO MENPEKOTASUNETIK BURUJABETZARA




GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Baratzegintzan diharduten zortzi nekazariok, landare txikiak saltzen dituzten enpresa handiekiko menpekotasuna hausteko ideia bat izan zuten: zergatik ez laborantza biologikoan ziharduten lau etxaldeak elkartu eta beraien baratzetarako landare txikiak ekoizten hasi? Horixe da Hazitik Azira egitasmoa, eta beharrezko materialak eta baliabideak eskuratu ahal izateko diru bilketa kanpaina dute orain abian.

EKOIZLE TXIKI ETA BIOLOGIKOEN ALIANTZATIK SORTUA

Biriatu, Irisarri eta Lekorneko lau etxalde batu dira ekimenera, guztira baratze gintza biologikoan diharduten zortzi ekoizle dira. "Orain arte landare ttipiak kanpotik ekartzen genituen, baina konturatu ginen horrek gure sistemak ahul egiten zituela, kanpoko horien erabakiekiko menpeko ginelako", azaldu digu Argitxu Ithourria Lekorneko Garroa etxaldeko ekoizleak.

Duela bi urte hasi ziren proiektu hau pentsatzen, eta kooperatiba forma hartu zuen egitasmoak. Aurtengo martxo-apirila ingururako landare txikiak ekoizten hastea zen beraien helburua, udaberri eta udan baratzea horiekin egiteko. Baina koronabirusaren krisiak atzeratu egin dizkie planak: "Irailean behintzat horrekin hastea da orain gure helburua, horrela, hurrengo urtean izanen ditugu landareak", azaldu digu Lekorneko ekoizleak.



DIRU BILKETA ABIAN

Kooperatibatik landare txiki biologikoak ekoizten hasiak inbertsioa eskatzen die proiektuko kideei, eta gastuei aurre egiteko asmoz abiatu dute diru bilketa kanpaina internetez. Helburua 12.000 euro lortzea da. "Batetik, landareak ekoizteko tresna bat lortzeko erabiliko dugu dirua: tresna horrekin lur beltza hartzen da zakuetan eta molde batean finkatzen da, horren gainean landareak ereiteko", dio Ithourriak. Horrez gain, landaretxo biologikoen ekoizpenerako lanpostu bat ere sortuko dute.

Burujabetza irabaztea da helburua: "Proiektu hau denentzako da, kontsumitzaileentzat ere bai". Egitura handi bat sortu beharrean, lau etxaldeentzako eta

Lapurdi eta Behe Nafarroako lau etxalde elkartu dira baratzerako beren landare txiki biologikoak egiteko. Kooperatiba sorturik, elkarrekin tresneria erosi eta lanpostu bat sortuko dute.

inguru horretako baratzezain txikiengatza egitura txiki bat sortzea da ideia. "Bakoitzak bere aldetik egitea baino, laurok bat eginez tresna ederragoa sortzeko aukera izanen dugu". Iepotsolidaire.fr webgunean egin daitezke ekarpenak uda bukaera arte. ●

Basherrri
SAREA
SARTZAN KONTUAK HARTU ETA KONTZERTUAK

Elika gaitzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz

655709043 | info@basherrisarea.eus



Entretenimenduaren agenda zabalean produktu bat gehiago da musika”

GAZ LIMBO

Metal talde baten porrotetik trap talde bat jaio da Lekeition: GAZ Limbo. Taldekideen abizenen hizkiak dira “GAZ”, eta “Limbo”-k, berriz, bizi izan duten noraezari egiten omen dio keinu: bost bat urte igaro dituzte gustuko soinuaren bila, eta orain, aurkitu dutenean, ez dute bertan bizitzen geratu nahi. Aurten argitaratu dute Limboys izeneko EP-a, Dumb Boys taldearekin batera, eta disko berria prestatzen ari dira bete-betean.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

GAZ Limbo taldeko hirutik bik –Joseba Gereduzek eta Gaizka Aretxagak– egunero egiten dute Lekeitiotik Andoainera, ESCIVI eskolan soinu teknikari izateko ikasten hasi baitira aurten. Astearteetan eskolak lehenago amaitzen dituztela eta, bertako kafetegian jarri dugu hitzordua COVID-19aren pandemia lehertu baino pixka bat lehenago; eta, ikasle zalapartaren eta edalontzi soinuen artean, ia ordubetez aritu gara solasean, trapaz, euskal eszenaz eta oro har bizi ditugun garaiotan musikak betetzen duen funtzioaz.

Eurak dira mutazioaren adibide garbiena: metal talde batean jotzen zuten, baina abestietan nondik nora jo eztabaidatzeaz aspertuta, beren kasa ekin zioten, eta egungo soinura iritsi dira az-

kenean. “Gauza berriak bilatzea gustatzen zaigu. Betidanik entzun izan dugu trapa, rap-metalak ere eragin digu, eta azkenean halako deribatu moduko batera heldu gara”. Argitaratu berri duten bigarren diskoan antzeko bidetik jarraitzen dute, estreinakoan baino ilunxeago, eta soinuari gehiago erreparatu. “Beti bilatu nahi dugu soinu hobea”.

Antzeko kantak ez egiten saiatzen dira, kosta ala kosta: “Zerbait berdintsu ateratzen denean, edo aldatu egiten dugu, edo zaborretara doa”. Aretxaga arduratzen da baseak egiteaz, eta behin lehen zirriborroa osatutakoan, Gereduzeri pasatzen dio, hark melodia eta hitzak sar ditzan. “Inspirazioa joan-etorrian ibiltzen da sarri. Futboleak bezala, golak sartu eta sartu ibili zaitezke, hariak eta bat-batean hamar jardunaldi igaro-

tzen dituzun arte baloia sareetara bidali gabe. Baina tira, gu azkenaldian bolada onean gaude”, dio Gereduzek. Basearen gainean errepika antzeko zerbait sortzen saiatu ohi da lehendabizi eta, behin hura zehaztutakoan, abestiaren egitura pertsonala osatzen du. “Zaila zait pauso hau azaltzea, baina ni moldatzen naiz”. Azkenik, egitura horren berri ematen dio Aretxagari, eta horren arabera erabakitzen dute zein zati aurreratu, zein zati utzi amaierarako, zein zati moztu. “Iruditzen bazaigu baseak ez duela funtzionatzen, baztertu egiten dugu, baina pare bat aldiz baino ez zaigu gertatu halako zerbait”. Blokeatu ere ez dira askotan egin, baina noiz edo noiz bai. “Hala-koetan, ezin zara gelditu. Onena izaten da jarraitzea eta jarraitzea. Saiatu eskuartearen duzunari beste buelta bat emar-





ten, eta azkenerako ateratzen da zer-bait". Taldeak ematen ez zien askatasuna ematen die biko formatuan lan egiteak, eta gehiago esperimentatzen dute orain.

Alderdi bisualari garrantzi handia ematen diote, era berean: "Musika irudiaz asko busti da. Egun, abesti berri bat argitaratzea ez da nahikoa, irudia jarri behar diozu". Beraien kasuan, irudia hasiera-hasieratik egoten da kantant integratuta. Hirugarren taldekidea, Ibai Zabala, horretan aritzen da eskusiboki. "Abestia amaitu bezain pronto berari pasatzen diogu, karatula bat egin dezan. Berak egiten du gure irudiarekin zerikusia daukan guztia: diskoko diseinuak, bi-deoklipak, kamisetak, zuzenekoetako bisualak... Jada ez da abestia entzun bakarrik egiten, erakutsi ere egin behar da. Musika begietatik sartzen da, inoiz baino gehiago". Kosta egiten zaie diskoa osotasun bezala pentsatzea, abestien aalez aleko produkzioan moldatzen dira hobeto: basea sortu, melodiak eta letrak gehitu, horri guztiari

jantzi bisuala jarri, dena biltzen duen bideo bat argitaratu, eta hurrengo kanta zerotik sortzera, berriz ere. Era horretara sortu dituzte orain arteko piezak, nahiz eta gero batean *-Buruaz beste* (2019)- eta EP batean *-Limboys* (2020)- argitaratu.

TRAPAREN ZAKU ZABALA

Eroso onartzen dute "trap" etiketa, ez dutelako zerbait finkoa bezala ulertzen, ezpada askotariko soinuak biltzen dituen zaku zabala bezala. "Traparen barruan apustu mota asko dago. Batzuk izan daitezke dantzagarriagoak, beste batzuk gordina-goak. Egon daiteke rapetik gertuago, edo hard-coretik, edo reggaetotik. Egun, fusioa inoiz baino handiagoa da". Izatekotan, jarrera batekin identifikatzen dute trapa: "Badago joera bat, harro antzekoa, erakustekoa zenbat diru daukazu, ze kotxe puskarrekin zabilzan... baina bakoitzak hauta dezake bere antzerkia". GAZ Limbokoentzat trapa da "lehen kanpamendua", baina gero

beti "beste leku batean" amaitzen dute. Metala eta trapa ez daude elkarrengandik dirudien bezain urrun. "Hor dago rap metala, adibidez. Guk asko edaten dugu hortik". Dena den, beren antzerkia bestelakoa da. Zorrotz kantatzen dute, esaterako, euskal eszenako talde batzuek, nonahiko tronpetakeriaz, herrialde oso baten kultur kontserbadurismoaz. "Zorroztasun hori umorez sortua da, berez. Adibidez, kantaren batean talde jakin batzuk aipatzen ditugu, bai, baina ez daukagu ezer pertsonalik beraien kontra. Gertatzen da hitz horiek tonu jakin batean kantatuta har dezaketela kutsu erasokorra. Antzerkiaren parte da, ordea".

Ez da kasualitatea, ziur asko, gertuko sentitzen dituzten taldeez galdetuta Gorpuzkingz aipatzea. "Jarrera hutsa dira. Ez dute gauza handirik egiten gaintzean. Baina jarrerak izugarri balio du, zer esanik ez herri honetan". Musika jarrerarekin erabat lotuta ulertzen dutenez, ezinbestean erreparatzen diote taula gaineko performatibitateari. "Abestiak ez ezik, espektakulu osoa eraiki behar du musikariak egun. Jendea zuzenekoetara ez da musika entzutera bakarrik joaten. Parean daukatena zerbait entretenitua

“

Musika irudiaz asko busti da. Egun, abesti berri bat argitaratzea ez da nahikoa, irudia jarri behar diozu”



izatea nahi dute. Oso ondo jo eta kantatu dezakezu, baina jarrerarik ez badaukazu, alferrik zabiltza. Gorpuzkingzekoek bikain zukutu dute hori". Haien aldean, puntu teatralari uko egin gabe, baina zuzeneko "errealagoa" daukate beraiek. Ondo jotzera ateratzen dira, batez ere. "Kontzertuetan baino, diskoan ikusten da nabarmenago gure ukitu ironikoa, baita antzerkia ere. Umorea eta antzerkia lotuta doaz gudan".

BAIKORTASUNETIK URRUN

Dena dela, kantatzen dutena ez dago pentsatzen dutenetik hain urrun ere. Euskal eszenan oraindik ere joera oso kontserbadoreak daude indarrean, haien ustez. "Ibilaldira joan eta orain dela hamar urteko talde berak aurkituko dituzu". Iruditzen zaie sektore zabal bat musikalki ez aurrera ez atzera gelditu zela aspaldian, eta jarrera atzerakoi horren ondorioak nozitzen direla

oraindik ere. "Guk ez daukagu arazorik Esne Beltzarekin edota Skakeitanekin, baizik eta beti beren baitan ixten direnekin, urtetan irratian musika berbera jartzen ari direnekin, kontzertuetan beti gauza bera programatzen dutenekin... Aniztasuna eskatzen dugu, besterik ez".

Mesfidatiak dira munda klik batera daukagula dioen ustearekiko. Alde batetik, ukazina iruditzen zaie edonork daukala inoiz baino musika gehiagora iristeko aukera. Baina askotasunaren atzean hierarkiek bere horretan jarraitzen dutelakoan daude. "Gaur egun ere xehe-xehe ematen dizuten hori entzungo duzu batez ere. Bestelakoa bilatu egin behar duzu. Noski, irratia -eta baita sareak ere- gauza jakin batzuk ematen dizki-

gu xehetuta". Gehienei musika bost axola zaiela uste dute, eta beren bizitzetan funtzio erabat ludikoa ematen diotela. "Entretanimenduaren agenda zabalean produktu bat gehiago da musika. Horregatik lotu ohi da musika baikortasunarekin. Letretan, melodian... poztasun moduko bat topatu nahi du jendeak: *Al-dapan gora*, eta abar. Hortik kanpoko zerbait egiten baduzu, jende gutxiagori interesatuko zaio".

Beraiek urrun sentitzen dira derri-gorrezko baikortasun giro horretatik, baina badute beren zale multzoa. Zuzenekoei garrantzi handia ematen diote, bereziki zainduz, entzulearekiko harremana ahalik eta parez parekoe-na izan dadin. Gereduzerentzat ezin-

bestekoa da publikoarekin konexioa bilatzea. "Arretarik jartzen ez badute, neu ere amildu egiten naiz". Ez zaie beti

erraza suertatzen entzuleekin bat egitea, baina gogotik saiatzen dira. "Kanta eta kanta arteko une horiek zainduz, abesti sortak jarraian joz, hutsarteetan zerbait esanez...". Oraindik lau zuzeneko bakarrik eman dituzte, eta ikasten ari direla az-

pimarratu dute. Eta bitartean, disko berriko kantak prestatzen ari dira, alez ale, eta honaino ekarri dituen noraeza bideratzen jarraitzeko asmoa daukate, auskalo nora iristeko. ●

“
Jendea zuzenekoetara ez da musika entzutera bakarrik joaten. Parean daukatena zerbait entretenitua izatea nahi dute”



LIBURUA

Arrakalak zutabe zaharretan



SANTA FAMILIA

IDAZLEA: EIDER RODRIGUEZ
ILUSTRATZAILEA: JULEN RIBAS

IKASTOLEN ELKARTEA, 2017

AMAIA SERRANO MARIEZKURENA

Badirudi azken urteotan euskal komikigintzak irakurleak eta ospea eskuratu dituela. Euskadi Sarietako Haur eta Gazte Literatura sailean *Santa Familia*-k irabazi izana ere bada horren erakusle.

Komikiaren izenburutik ez ezik, azaletik bertatik ere antzeman diezaioke irakurleak gaiari: familia egitura tradizionalari egindako kritika. Horren oinarrian dagoen tradizio kristauan kokatzen da familia eredu hori, eta hemen begirada ironikotik eraikitzen da kontakizuna. Gure egitura intimoetan eroso egotean sortzen diren inertzia kritikatzen dira *Santa Familia*-n, hainbat modutara: binetetan irudikatzen denaren eta narratzaileak dioenaren arteko talkaren bidez, pertsonaiak karikaturizatuz, koloreen erabilera sinboliko eta funtzionalaz baliatuz, gu-

rasokeria ageriko eginez, nerabezaroko identitate krisia lehen planoan jarriz, film eta superheroiei egindako keinuen bitartez, eta abarrez.

Gizarte honetan heroitasuna, edertasun kanona eta jendaurrean eredu on gisa agertzearen pisua moralki zuzena denari uztarturik ageri da komikian. Guztia ikuspegi errealista batetik garrantzen da, harik eta Norak bizi duen krisiaz jarduteko zientzia fikziora jotzen den arte.

Nora gazteak hautatzen duen bideari jarraitzen dio narratzaileak, eta urrats horiek Julen Ribasek maisuki irudikatzen ditu, bineta mota ezberdinetan nerabearen itolarria eta ezinegona marratuz. Eider Rodriguezek ere ezin hobeki azaleratzen ditu gurasoen gehiegizko babes eta kontrola. Egiturari

dagokionez, elipsi ugari du komikiak, bere laburrean atalak balitu bezala, baina atzera-jauzi batzuk beharrezko dira pertsonaien izaera eta jarrera ulertzeko. Bi sortzaileen arteko lanak sinbiosi bikaina osatzen du, xehetasun txikien bidez, eguneroko familia arrunt bat izan daitekeena guztiz deseraiki arte. Umorea dario eszena bakoitzari, eta horrek drama arintzen du.

Nerabeen (eta, oro har, haurren) agentzia-beharra azpimarratzen da komikian, gurasoen beren frustrazioak seme-alaben bitartez gaindi ez ditzaten. Hiru bizimodu eta bizitza-esperientzia ezberdin izan dituzten Sorkunde ama, Teodoro aita eta Nora alaba biltzen dira teiltupe berean, ustezko zoriontasunaren zutabeak kraskatzen hasten diren arte. ●



MUSIKA

Bertuteak garatu eta findu



GURE HIZKETAN ETXEKALTE

AUTOEKOIZPENA

IKER BARANDIARAN

ndartsu dator gazteria eta, ezin bestela, esponjak dira musika estiloak ere barneratzen. Ideiak argi izanez gero eta ahaleginduz gero, oztopo guztiei aurre egin ahal zaie, ez dago dudarik; lehenago edo geroago badator emaitza. Horixe egin du Bermeoko Etxekalte laukoteak. Musikazale amorratuak izanik, 2016an ekin zioten buruan zutena garatzeari eta plazaratzeari. Epe laburrera, baliabide oso gutxirekin maketa grabatu zuten, baina ez zioten zabal-kunderik eman nahi izan. Oraindik ez zuten nahi zutena lortu.

Gaur egungo gazte gehientsuenek bezala, Etxekaltekoek beste talde askoren artean Berri Txarrak izan dute erreferentziatiko bat; hain zuzen ere, energia eta erritmo gogorrak melo-

dia sarkor eta mezu landuekin modu orekatuan uztartzeko orduan. Argi eta garbi, metaletik aldenduago dago Etxekalte, baina finean badute hauek ere Lekunberrikoek erdietsitako bertute hori, oso gutxik daukatena.

Taldearen estreinako disko hau mizoz egina dago; kanta bakoitzak ñabardura ugari du eta asko dira lortutako giro eta sentsazioak. Soinua ere ederra da, ondo bereiztua. Nabarmen-tzekoa da emaitza are eta gehiago fin-tzeko James Morganek eta Asier Renteriak Mungiako Magic Box estudioan egindako lana.

Epaitu eta oker-ek emo eta post-hardcoretik edaten du, erritmo aldaketa itzelak dauzka eta rock alternatibo hitla ere bada. *Erabaki*-ren hastapen power

-pop rockeroak Los Clavos oroitarazi dit, nahiz eta gerora rock-metal euskalduna eta hardcore melodikoa ere bazuten dituen. *BBH* piezak beste tonu bat dauka, oso-oso sentikorra, eta metalean amilduko denaren itxura, baina ez. *Orduan bai* hit!a da, kanta erabat itsaskorra hardcore melodiko dotoreenarekin jantzita eta doinua garraztuz mugara eramana. *Gure hizkeran*-ek AEBetako emotik abiatuta erdi tempoak, pasarte malenkoniatsuak, garrasi sentikorrak eta Dut gogora ekarri dizkidaten metal eta post-hardcore arteko zantzuak bazuten ditu. Eta, azkenik, *Tristoriak*: izenak dioenetik harago rock alternatiboa da, euskal izana, melodia eta erritmo joko eta malenkonia batzen dituen ariketa ederra. ●



Museoak kalean

 DABI PIEDRA

Jendea etxean itxita egon den bezala, museoetako altxorrek ere itxialdian egon dira luzaroan, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiagatik. Bisitaririk gabe, ilunpean, erabateko isiltasunean pasatu dituzte hainbat aste. Horregatik, gogo handiz ireki dituzte museoek beren ateak, barruan gordetzen dituzten objektuak berriro erakusteko asmoz.

Bizkaiko museoak ez dira bisitarien zain gelditu, eta kalera irten dira, beren bildumetako pieza esanguratsuenen berri ematera. Bilboko Uribitarte pasealekuan panel handi-handiak jarri dituzte, argazkien bidez museo bakoitzeko pieza bat erakutsi eta haren inguruko bitxikeriak kontatzeko. Museo ezagunek egin dute bat Uribitarteko erakusketarekin, baina benetako deskubrimendua museo txikietan gordeta dauden bitxikeriak dira.

Azken batean, Bizkaiko herriak bisitatzeko aitzakia polita dira museoak. Eskualde guztietan dago non aukeratu,

normalean inguruko historiari eta ohiturei buruzko museoak izaten dira, txikiak bezain txukunak.

Adibidez, Bakioko Txakolinaren museoan, Txakolindegia delakoan, Bakiok edari horrekin XIV. mendetik izan duen harreman estuaren berri jasoko dugu. Itsasoaren hurbiltasunari eta lur-sail aiposei esker, txakolina egiteko mahasti bikainak daude herriaren inguruan. Eraikin moderno eta dotore batean dago Txakolingunea, ikus-entzunezkoen eta bisitaldi gidatuen bidez bisitarietara txakolinaren produkzioaren sekretu guztiak (edo gehienak) kontatzeko prest.

Museoko pieza kutuna Luzarraga baserriko dolare zaharra da. Uribitarteko erakusketan Txakolingunearen ordezkaria dira dolarearen argazkia eta haren funtzionamenduaren inguruko azalpenak. Bakioko baserri horretan txakolina egiteko erabiltzen zuten dolarea, harrizko tramankulu hori gai baita mahatsa xehe-xehe egin eta gerora ardo bihur-

tuko den likidoa ateratzeko, xurrutua izeneko hustubidetik. Beste baserri batzuetan sagardoa egiteko erabiltzen da dolarea.

Pieza galanta da dolarea, baina ez da Bizkaiko museoetako handiena. Bilbon jarritako paneletako batean kontatzen digutenez, *Agurtza* arrantza-ontzia ikus daiteke Santurtzin, baita barrura sartu ere. Luzaroan baxurako arrantzan ibili zen Lekeitioko ontzi hori eta, ondoren, Santurtzira, Itsasoa Interpretatzeko Zentrora, eraman zuten.

Dolarea eta *Agurtza* Bizkaiko museoetan ikus daitezkeen piezetako bi baino ez dira. Uribitarte pasealekuko paneletan argazki gehiago daude ikusgai, uztailaren 8ra arte. Bilbora hurreratu ezin duenak museoeneguna.eus webgunean ere badu aukera. Hala ere, esperientziarik politena, dudarik gabe, museoetara joan eta piezak bertatik bertara ikustea da, osasuna babesteko neurriak gogoan izanda, noski. ●

Ihitz Iriart Casenave

KANTATU NAHI DUT HERRIA



TXORI BAT, ADARRETIK ADARRERA

“Esaten da sorlekuak baldintzatzen duela bidea. Ni Zuberoako Aloze herrian sortua naiz, Txorikantagia auzoan, 1987an. Txikitatik, gurasoek Erregetxopita dantza eta kantu taldera eraman gintuzten, Larrainera. Hor ikasi genuen zer zen gure kultura. Ikastolak ere anitz eman digu; hango lagunaren artean sortua da Amaren Alabak taldea: 12 urterekin hasi, eta gaur egun arte. Urte guzti hauetan, proiektuak eman dio erritmoa nire bizitzari: proiektu aurreko momentua, proiektua bera, eta ondokoa, eta ondotik heltzen zen beste bat. Maskarada batzuetan parte hartu dut, pastoraletan ere. Orain, txori hori Iruñean pausatu da, bizitzak hala ekarrita, eta gauza berdintsua egiten hasi naiz hemen. Sortu dira beste proiektu batzuk, eta ekarri du beste jende askoren ezagutza. Hori da sorkuntzak dakarrena: imajinazioa landu, harremanak egitea. Bizitzeko modu bat da. Ongi ala gaizki, hori da egiten dakidana”.

“Ari gara gure buruak ehorzten, zuloa guretzako egiten. Oso gutxi sinesten dugu gure baitan”

Goizeko ordu txikietan kantuz hasi nahiko luke, edozein tabernatan, baina beldur da bitxiki begiratuko ote dioten, galtzen ari baita lagun artean kantatzeko ohitura. Ez da izanen errepertorio faltagatik, baina bai, agian, euskaldunok gure kantagintzari begiratzeko dugun moduagatik, hartu diogun zahar usainagatik. Hala uste du Ihitz Iriartek (Aloze, 1987), Iruñean bizi den abeslari, kantu taldeen gidari, kultur ekintzaile...zuberotarrak. Jatorriari buruzko topikoei tiraka abiatu da elkarrizketa.

 ANDER PEREZ  JOSU SANTESTEBAN

Hara, zuberotar bat kantuan.

Zuberotarra zarella esan eta askotan eskatzen dizute zerbait egiteko: “Kantatu, dantzatu... Badakizu, beraz emaguzu zerbait”. Ez da denei tokatzen zaien ibilbide bat, baina oso erraza da zuberotarra izanik bide hori topatzea. Zuberoan kantuak mantendu du funtzioa, festan, ezkontzan edo hiletatan; bada manera gordin bat, eta sentsibiltatez betea, zerbait edertzeko.

Izanen da desafinatzen duenik ere.

Bistan da [barrezka]. Baina egia da herri kantari batean sortzeak beharria lantzen laguntzen duela, eta kantuak ezagutarazten. Eta gainera, eta ez da bortxaz onerako, Xiberoan oso ongi kantatu dezakezu euskaraz kantaldi oso bat, baina euskaraz jakin gabe, edo euskaldun sentitu gabe. Pastoralak, maskaradak, oso deslotuak dira euskaldun izatetik, oso ohituretan sartuak.

Hor bada alderik Hegoaldearekin?

Ez derrigor. Iruñea Kantuz-en jende ezberdina ikusten dut, baina ez dakit min gehiago zerk egiten didan:

ikustea euskaraz jakin ez baina euskaldun sentitzen den norbait euskal kantuak kantatzen, irudiz bezala nahikoa zaiola, edo euskara ez dakien eta bere burua Euskal Herrian ere kokatzen ez duen norbait euskaraz kantatzen, baina bere pentsamendua urrunago eraman gabe.

Aberri Egunean, Txoria txori eta Ikusi mendizaleak hautatu ziren kanturako. Izan zen galdetu zuenik ez ote genuen beste kantarik partekatzen.

Oso gutxi dira denok partekatzen ditugun kantak. Euskara dakigunon artean ere, zenbat dira ez dakizkigunak? Pastoral bakoitzean urtero sortzen dira lau-bost. Maskarada bat urtero? Beste kantu bat. Haur kantari txapelketetarako sortzen direnak. Milaka. Egiten dira behin, baina ez dira sartzen gure errepertorioan. Horregatik mingarria zen bi kantu horiek hautatzea, esatea bezala: “Euskal herritarrek gutxi gara, txiki gara, beraz tira, Hegoak... eta bes-tea”. Baina oso pobrea da, eta ari gara gure buruak ehorzten, zuloa guretzako



"MUGA' ESAN, ETA IKUSTEN DUGU MARRA BAT, ETA BEGIRADAK BI ALDETARA, BAKOITZA BERERA; BAINA IRUDITZEN ZAIT JUSTUKI TOKI HORIEK ELKARGUNEAK DIRELA, ETA KULTURAK, AZKEN FINEAN, EGINAK DIRA ELKAR ULERTZEA POSIBLE DELAKO".

ko egiten. Oso gutxi sinesten dugu gure baitan; gure kantuak oso zaharkituak direla uste dugu, aspergarriak. Ez gara kapaz kantuen poesia garai bakoitzari egokitzeko, eta baztertzen ditugu.

Mugan aurrera eta atzera ibiltzen zara. Zer aldatzen da Dantxarinearik Ainhoara?

Justuki hor, deus. Bi tokitan da bertsoa natura, bizitza, kultura egiteko modua. Egia da Iparraldean oso begi-bistakoa dela herri kultura, libertimenduak, kabalkadak. Baina uste dut hemen ere, Nafarroan, funtsean ekitaldi bertsoak direla, adibidez Lantzen edo Altsasun, inauterietan. Plaza gainekoa ez da berdin -berdina, baina herri bat biltzen da festa bat aurrera eramateko, sortzen dira harremanak, eta desegin. "Muga" esan, eta ikusten dugu marra bat, eta begiradak bi aldetara, bakoitza berera; baina iruditzen zait justuki toki horiek elkarguneak direla, eta kulturak, azken finean, eginak dira elkar ulertzea posible delako.

Baina Iruñean egonda, sentitu duzu mugaren pisurik?

Hainbeste aldiz entzun dut etxean "denak

nafarrak gara"... Ni sortu naiz zuberotar peto-petoa, ulertu gabe zergatik denok nafar izan behar genuen [barrez]. Eta heltzen zara Iruñera, eta oh, Nafarroa, oh, Euskal Herria... Eta ez. Ez da horren agerikoa. Iruñean hastapen batean frantsesa sentitu nintzen, baina hasi naizenean txikitzen egindako ber lana hemen egiten, berriro sentitu naiz nire tokian. Eta are botere gehiagorekin, edo lotsa gutxiagorekin, konplexurik gabe euskara dakidalako, bitxi sentitu gabe.

Azken urteetan, Iparraldeko herri kulturaren adierazpideek toki hartu dute Iruñean: Bidador Pastoral lehenik, eta Iruinkokoa libertimendua gerora. Zu hor aritu zara.

Pastoralarekin niregana etortzean, nire lehen erreakzioa izan zen: "Utzi gaitzazue pixka bat bakean. Ezin duzue dena izan. Zuberoan dirurik ez dugu, beti Hegoaldeari eskatzen diogu. Zuek dirua daukazue, guk kultura daukagu, onartu ezazue [barrez]". Baina gero ikusi nuen Zuberoan egin ahal ez nituzkeen gauza batzuk egin nitzaizkeela Iruñean, askatasun bat banuela.

Edukietan?

Egiteko moduetan, tradizioa hunkitzeko moduan. Niretzat, pastoraletan edo herri ekintza horietan, garrantzitsuena da egokitu daitekeela, eta egokitzen direlako ez direla hiltzen. Esaten nuen: "Pastoral bat Iruñean? Zentzurik badu?". Eta bai, zeren eta pastoralak edo libertimenduak jendea elkartzen du helburu komun baten ondoan; eta euskaraz sorkuntza egiteak ez dakit kalterik egin dezakeen. Iruñean euskal komunitatea txikia dela esaten da, baina bada jende bat elkar ezagutzen ez duena, eta hor ikusi nuen funtzioa.

Kulturak egiten du herria?

Kontua da gure kulturarako, momentuz, herririk ez dagoela. Kontraesan bat da: kultura baliatu daiteke herri bat sortzeko, oso borroka alor polita da, baina ber momentuan, herririk, estaturik ez dugunez, oso zaila iruditzen zait gure kultura eta hizkuntzak aurrera egitea. Babes gehiago izanen genuke benetan onartuko bage-nu euskaldunak garelara, eta gure kulturak balio duela zerbaitezarako. Sinesmen hori gure partetik ere balego. Ezjakinak gara, ez dakigu zer dugun, oso zaharkituak ikusten ditugu gauzak, fosilizatuak, eta ez dakigu zenbat jolastu daitekeen. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS



Kantabriak Euskal Autonomia Erkidegoko probintzia izateko eskaera ofiziala egin du

Adituek nabarmendu dutenez, urrats logikoa da, kontuan izanda geroz eta diferentzia gutxiago dagoela bi erkidegoen artean Iñigo Urkulluren hizkuntza-politikari esker. ●

Podemosek zerbait aldatuko duela uste duen azken pertsona babestu beharreko espezieen zerrendan sartu du Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundeak

Erakunde ekologistek azaldu dutenez, ia ezinezkoa izango da bizirautea, espeziea desagerrarazten ari den harrapariak Podemoseko buruzagiak baitira. ●



Txosten europar baten arabera, Abiadura Handiko Trena martxan jartzen denerako gizakiak ez dira Lurreko nagusi izango, tximino inteligenteago batzuk baizik

Txostenari buruz galdetu diotenean, Arantxa Tapiak bi eskuekin belarriak estali eta "nanana-na-naaaaa ez dut ezer entzuteeeen" esan du. ●

OASIKO
Kronikak

▶

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin

Amul been rit ku leegakul



Artikulu hauek erositu ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moye Dooleren** erresistentzia kutxari eta **Argiari**. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



15€*
KAMISETAK



8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA



24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: AZOKA.ARGIA.EUS edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com